

Goienkaria

2010eko urtarrilaren 29a > Egubakoitza > X. urtea > 407. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM

"Aberastasuna esku gutxitan batzeko bitarteko bihurtu da politika fiskala"

Ainhoa Etxaide
LABeko idazkari nagusia > 08



G2a

Ken Zazpi bihar
Bergarako Jam
aretoan > 31

ARRASATE
Epeleko araztegia 2011ko apirilean
hasiko da lanean > 02-03

BERGARA
Irizar jauregia konpondu egingo du
Udalak E Planeko diruarekin > 16

ARAMAIO
Eguneko zentroa finantzatzeko
akordioa sinatu du Udalak > 27

ELKARRIZKETA

> DES-KONTROL MUSIKA TALDEA

"Jotzen uztea errazena litzateke; gogotsu eta indarrez gaude"

Astebete pasa da Arrasateko Des-Kontrol musika taldeak Barakaldon jipioia jaso zuenetik. Orduetik hona elkartasun mezu ugari jaso dute. Adibide bat: eraso izan eta 48 ordu-ra Facebook sare sozialean 1.000 lagun batu ziren taldeari elkartasuna adierazteko, eta kopurua gora doa, etengabe. Jipoiaren ondorioz izandako zauriak badoaz sendatzen, baina handiena, psikologikoa, "hor geratuko da betiko", esan dute musikariek. Hala ere, "aurrera jarraitzeko gogotsu" ere badaudela gehitu dute. > 33



Ezkerretik hasita, Oier Beitia Magu, Cesar Beato Nako, Hodei Beitia Magulin, Urtzi Belastegi Pepin, Markel Urrutia Garrulo eta Iker Laskurain Peter, Arrasaten. IBAN GORRITI

ZERBITZUAK > HONDAKINAK

Beste proposamen bat egin diote udalek zaborren kontsортzioari

HOBEKUNTZAK Gipuzkoako Hondakinen Kontsортzioaren hitzarmenari bi aldaketa egin nahi dizkio Mankomunitateak

TASA Lapatxeko plantak ematen duen zerbitzua tasa bidez ordaintzea nahi du Mankomunitateak

BONIFIKAZIOA Bio-hondakinari ezarritako bonifikazioa %25etik %50era igotzea ere eskatu dute, herritarrak inplika daitezten > 05

JENDARTEA > PRESOK

Baraualdia egingo dute presoan alde

Arrasaten egingo dute, asteburuan; manifestazioa ere izango da, domekan, 18:00etan > 06

AURKIBIDEA

Debagoiena > 05-06
Elkarrizketa > 08
Iritzia > 10
Gutunak > 10
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 31-33
Gazteak > 34
Saillatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Zerbitzuak > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

Ukabi
informatika

Enpresa kudeaketa aplikazioak
•
Era guztietako webguneen diseinua
•
Etxerako eta enpresetarako salmenta

Domingo Irala z/g BERGARA
Tel.: 943 15 01 01

Inaugurazioa
Gaur, urtarrilak 29
18:00etatik 20:00etara



Etorri,
gurekin ospatu eta
eraman
Acer Extensa 5235
DOAN*

* Bertaratutakoaren artean zozketa egingo da.

INGURUMENA > EPELEKO ARAZTEGIA

Araztegiaren lanak azken txanpan daude, eta aurten bukatuko dira

EPELEKO ARAZTEGIA, 2011N

Azken ukituak eman ondoren eta zenbait hilabetetan probatan ibili ondoren, Epeleko araztegia lanean hasiko da 2011ko apirilean

ALDAKETA Hasieran, aurreikusita zegoen Oñatiko urak ekartzeko tunela egitea Arrandiburu mendia zeharkatuz; horren ordez, bi hodi egingo dituzte, mendia inguratuta

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Epeleko araztegia, Deba ibaiaren saneamendu sarearen giltzarria, aurreikusitako epeen barruan egongo da bukatuta eta lanean: aurten bukatuko dira obrak, eta proba epealdi baten ondoren, obren arduradunek diote 2011ko apirilean hasiko dela lanean araztegia.

Azken txanpan sartuta, azpiegitura ikusgarria da dagoeneko Arrasate sarreran, autobideko biribilgunearen alboan, ibai alde-dera. Espainiako Ingurumen Ministerioak hartu zuen araztegia egiteko ardura, interes orokorreko lanak zirela aitortuta, eta 2007an hasi ziren lanak; orduko hartan, epeak beteko zituela agindu zuen Madril, eta halaxe izango da, dena ondo bidean. UTE EDAR Epele enpresak dihardu lanak egiten, Espainiako Ingurumen Ministerioaren mende dagoen Kantauriko Ur Konfederazioaren erakundearen ardurapean. Bukatuta dagoenean, Gipuzkoa-

Kolektore guztiak dagoeneko bat eginda daude araztegiarekin; Oñatiko urendako konexioa falta da

Araztegiak gain, Ingurumen Ministerioak 400-500 bat metroko bidegorria egingo du ibaiaren ondoan

ko Urek izango dute araztegiaren ardura.

Azken asteotan, proiektuari aldaketa bat egin diote arduradunek: Oñatiko urak araztegi-raino ekartzeko aurreikusita zegoen 2.007 metroko tunela, Arrandiburu mendia zeharkatzen; horren partez, ura bultzatuko duten bi hodi egingo dituzte, mendia inguratzen. "Tunelak konplikazio gehiago zekartzan: batetik, obra egiteko; eta bestetik, martxan jarri ondoren, esploztazio aldetik. Batez ere, segurtasun arazoak ematen zituzten", azaltzen dute obren arduradunek. Aldaketa hori ontzat eman zuen Arrasateko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, abenduan. Gainera, ez du lehengo 32 milioi euroko aurrekontua handituko. Oñatiko ura hodietatik bideratzeko beste obra txiki bat egin behar da Zubillagan: ura ponpatzeko putzu bat.

Obren arduradunen esanetan, hoditeria hori martxoan hasiko dira egiten. Hori ez beste kolektore guztiak konektatuta daude, eta araztegia izango denaren atzealdean batzen dira, lur azpian. Lotune horretaraino eramango dituzte hodi haiek ere.

Bestalde, Espainiako Ministerioak 400-500 metro inguruko bidegorri zati bat egingo du hoditeriak markatutako bidea jarraituta, eta haien gainetik. Bidegorria ibaiarekiko paraleloa izango da. Lokatza eta hodi artean, baina dagoeneko badabil forma hartzen ere.

DAGOENKO HOBETO DAGO

Epelek Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatiko urak hartuko ditu. Horien kolektore sarea



Depositu hauetan egingo da ura garbitzeko azken fasea, ibaira bueltatu aurretik. Argazki txikiak

eginda dago, eta 2008az geroztik martxan dago ere Debagoieneko beste araztegia, txikiagoa, Bergarako Mekolalde auzoan, Eusko Jaurlaritzak egin.

Epelekoa izango da Deba ibai osoko saneamendu sarea biribilgunearen duen azpiegitura. Deba arro erdialdean, Apraizko araztegia dago, Elgoibarren, eta behealdean, Debakoa eta Mutrikukoa. Sarea osatzeko, falta da Soraluze eta Apraizten arteko lotura egitea.

Geratzen dena geratuta, orain daukagun Deba ibai ez da orain bost urte geneukan berbera, ezta gutxiago ere; zerbaitean igarri behar da saneamendua sarea bukatzekotan egote hori: "Dagoeneko igartzen da, bai. Goitik dator gaizki, Epele-

ra arte, hain zuzen; baina Bergara aldean, ikusten da hobekuntza; arrain gehiago ere badabil", dira Felix Izko Foru Aldundiko Uraren Kontrol eta Kalitate Unitatearen buruaren hitzak. Gaineratzen duenez, "iturburutik, goitik, oso lastatua, oso kaltetua dator ura, Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaleta aldetik, eta Epeleko araztegia martxan jartzen denean, izugarriko aurrerapauso egingo da, hobekuntza handia igarriko dugu", gaineratzen du Izok. Gero, "bigarren buelta bat" egin behar da, sarea "auzoetara, poligonoetara... ailegatu dadin".

Araztegiak ez dira nahikoa, ordea, biztanleriak kontzientzia hartzen ez badu, eta horretan ere

LABUR

Deba ibaiaren saneamenduaren azpiegitura klabea da Arrasateko araztegia

Debagoieneko beste araztegia, Mekolaldekoa, 2008an bukatu zen eta urte berean jarri zuten martxan, Deba erdialdeari zerbitzu emateko; 40.000 biztanleko populazio baliokideari, alegia. Hura Eusko Jaurlaritzak egin zuen, eta 13.650.000 milioi euroko inbertsioa egin zuen horretarako. Araztegia egiteaz gain, Mekolalde baserria ere birgaitu zuen, eta kontrol-gela gisa egokitu zuen.

Debagoiena izango da Debarro osoan azkeneko azpiegitura sarea bukatzen. Ibarreko beste hiru araztegiak, Debakoa, Mutrikukoa eta Elgoibarkoa, aspalditik martxan daude. Elgoibarkoari dagokionez, Foru Aldundiko Uraren Kontrol eta Kalitate Unitatearen esanetan, falta dena da Soraluze kolektoreak hara konektatzea; eta, horrez gain, Ermuko eta Mallabiko ur zikinak ere Elgoibarren tratatuko dira. Berantiarra, hortaz, baina kontuan hartu behar da Epelekoa azpiegitura klabea dela Deba ibaiaren saneamendu sisteman, eta Espainiako Gobernuaren mende egon zela proiektua hasieratik. Hala, 2005ean hasi zen Ingurumen Ministerioa lanen hasiera eztabaidatzen eta erabakitzen. Europako Batasunaren gomendioek zioten 2007rako saneamendu sarea bukatuta egon behar zela, baina oraindik urte horretan hasi ziren Epeleko obrak. Atzerapenarekin izan arren, araztegia ongi etorria izango da benetan.

LORAMENDI

50%

INTERSPORT Arrasate



EPELEKO ARAZTEGIA

- > **HEDADURA**
Gutxi gorabehera, 25.000 metro koadro hartzen ditu, hainbat eraikin eta egituratan banatuta. Solairu bakarreko eraikinak dira.
- > **GAITASUNA**
Segundoko 848 litro ur kudeatzeko gaitasuna izango du.
- > **LAU HERRI**
Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko ibai-urak hartu eta garbitu egingo ditu, herri bakoitzeko kolektoreek garraiatuta. Denetara, 85.000 biztanleko populazio baliokideari zerbitzu emateko gaitasuna izango du.
- > **GARBIKETA**
Prozesu biologiko batzuen bitartez garbituko da ura. Fosfatoak, nitratoak, materia organikoa eta bestelako kutsadura kendu eta Deba ibaira bueltatuko da ura, ahalik eta garbien.
- > **32 MILIOI**
Espainiako Ingurumen Ministerioak dihardu obrak egiten, interes orokorreko azpiegitura izendapena eman ziolako. 32 milioi euroko aurrekontua dute lanok, eta epeen barruan bukatuko dira. Bestalde, Espainiako Gobernuak egingo du ere araztegi ondoko bidegorri zati bat.

an, goian, kolektoreak araztegiara sartzen diren ingurua, eta behean, bidegorria nondik nora joango den.

GOIENKARIA

badugu zertaz poztu, Izkori kasu eginda: "Industrian ere asko hobetu dela ikusi dugu. Industrietatik metalak, zianuroak eta antzeakoak isuri ohi dira uretara; bada, azken urteotan, industriak ere kontzientzia hartu du, eta askok ura eurek tratatzeko gailuak ipini dituzte". Aldundiko aditu horrek azaltzen duenez, "industria batzuek Gipuzkoako Urek baimentzen duten sistema batzuk dituzte; beste batzuetan, zuzenean saneamendu sarearekin konektatzen dira sistema horiek. Arazoa da industrietan erabiltzen dituzten metal batzuek uraren tratamendu prozesuak gerarazi egiten dituztela; bada, Urek eta udalek horretarako irizpide batzuk dituzte". Uraren Kontrol

eta Kalitate Unitatea Deba ibaiaren uraren kalitatea azaltzen duen txostena prestatzen dabil, eta martxorako gertu izango da. Pentsatzekoa da txosten horrek berretsiko duela adituaren iritzia ona, eta Debak apurka-apurka gainera kendu ahal izango duela Euskadiko zikinena izatearen ospe txarra.

IKUSGARRIA ETA KONPLEXUA
Epeleko araztegia azpiegitura ikusgarria da, eta oso konplexua. 11 ur depositu ditu, dagoeneko bukaerako ukuituen ostean izango duten itxura dutenak. Solairu bakarra izango du, eta 25.000 m2 inguruko hedadura hartuko du. Hainbat eraikin eta depositu izango ditu. Depositu edo gordailu

horietan batuko da ura, hainbat tratamendu ematen zaizkion bitartean. Prozesu biologiko batzuen bitartez, urari fosfatoak, nitratoak, materia organikoa... kenduko dizkiote, ibaira ahalik eta garbien bueltatu ahal izateko. Segundoko 848 litro prozesatzeko ahalmena izango du. Sei lagunek jardungo dute araztegiak.

Bestetik, lokatza prozesatzeko atal bat ere egongo da: lokatza tratatzeak energia emango du, eta hori araztegia elikatzeke aprobetxatuko da. Epeleko araztegiak hortik lortuko du energia, neurri baten, behintzat; "beharra baldin balego, behar duen energia guztia hortik ateratu ahal izango luke", azaltzen dute arduradunek.

ESANAK

"Deba ibaia garbiago dagoela igartzen da, baina Epele martxan jartzea izugarrizko aurrerapausoa izango da"

Felix Izko > Uraren Kontrol zuzendaria

"Oñatitik tunela egiteak segurtasun arazoak zekartzen, batez ere, eta horregatik aldatu egin dugu proiektua"

UTE EDAR > Epeleko arduradunak



INAUGURAZIOKO KONTZERTUA

ken Zazpi

+ Josu Bergara

Sarrera aurretik: 12€
Bertan: 15€

ATEAK: 20:30 Josu Bergara: 20:45 ken Zazpi: 22:00

URTARRILAK 30

Salmenta Tokiak: BERGARA: Jai Aretxo. Etxegi URETU: The Intrapid Fox. EIBAR: Bichi Taberna. ARRASATE: Loizano Musical.

OnLine Aurretik: www.kulturative.com www.ticketmaster.es

Logos: arciak, semano, hitza, g2bea.



Debagoienako ikASTOLAK!

euskal herriaren etorkizuna ereiten



matrikula epea zabalik: otsailaren 1etik 12ra



943 76 90 71

www.aranzadiikastola.org



902 11 20 25

www.arizmendi.eu



943 78 12 04

www.txantxikuikastola.net

ZERBITZUAK > ZABORRA

Hondakin organikoen kudeaketan aldaketak eskatu ditu Mankomunitateak

Aldaketa nagusiak bi dira: tarifen ordezkobratzea, eta berau egiteagatik bonifikazioa %50era igotzea

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateko kideek hondakin organikoen gainean eztabaidatu zuten eguazteneko gobernu batzordean, eta Gipuzkoako Hondakin Partzuergoak aurkeztutako proposamenari aldaketa batzuk egitea onartu zuten.

Aldaketa nagusienak bi izango dira: alde batetik, kudeaketa eremuan Hondakin Partzuergoak proposatzen duen tarifen ordezkobratzea eskatuko dute; eta, beste alde batetik, zabor organikoari jartzen dioten hobaria %50 izatea.

Gobernu batzordeak proposatutako aldaketak Foru Aldundira bidaliko dituzte, azken horrek azter dezan.

TASA ORDAINTZEA

Tarifen ordezkobratzea eskatzearen arrazoiak azaldu digu Mankomunitateko Ingurumen batzordeburu Pedro Lasagabasterrek.



Neskatala bat hondakin organikoak botatzen edukiontzia marroira, Aretxabaletan.

GOIENKARIA

terrek: "Gipuzkoako Hondakin Partzuergoak kudeaketa eremuan tarifa kontzeptua erabiltzen du, kontzeptu hori erabiltzeko, besteak beste, Gipuzkoan jarri gura duten errauskailua finantzatzeko aukera emango die-eta".

"Gu ez gaude horrekin ados, eta tarifen ordezkobratzea eskatuko dugu. Lapatxeko plantak zerbitzu bat ematen digu. Horregatik guztiagatik, biltzen

ESANAK

"Hobariak handiago beharko luke, bonifikazioarekin aurrezten duguna garraioan gastatzen dugu-eta"

Pedro Lasagabster > Ingurumen batzordeburua

DATUA

10
TONA

Aretxabaletan, urtero, 10 bat tona hondakin organiko batzen dituzte. Debagoieneko Aretxabaletan bakarrik daude edukiontzia marroiak.

dugun zabor organikoak tratatzeko tasa kobratzea eskatuko dugu", gaineratu du Lasagabasterrek.

BONIFIKAZIO HANDIAGOA

Bigarren proposamen nagusia hobariari dagokiona da. Partzuergoak %25eko bonifikazioa proposatzen du, baina mankomunitateak gutxiegi dela uste du, eta %50a eskatu du. "Igoera eskatuko dugu herritarren inplikazioa behar-beharrezkoa delako. Ikusi behar dute zabor organiko birziklatzeak onurak dituela, besteak beste, onura ekonomikoak. Bestalde, %25 gutxi dela diogu, birziklatutako zaborra guk eraman behar dugulako Lapatxera, eta konpostarek ere guk ekarri behar dugulako. Hortaz, bonifikazioarekin aurrezten duguna bidaietan gastatzen dugu", dio Lasagabasterrek. Gaineratu du herri bakoitzak birziklatzen duen hondakin organikoak berak kontsumitu behar duela.

BAKARRIK ARETXABALETAN

Oraingoz, Aretxabaletan bakarrik daude hondakin organikoak biltzeko edukiontzia marroiak. Urtean 10 bat tona zabor jasotzen dute.

Etorkizunean, zaborra nola kudeatuko duten ez dakitela esan digu Lasagabasterrek, eta etxeko zerbitzua ezartzeko dauden aukeren gaineko txostena laster jasoko dutela.

Pilar Arana > Aldundiko Mugikortasun eta Garraio zuzendaria

"Udalei taxi zerbitzua hobetzeko ordenantza aurkeztu diegu"

M.B. > ARRASATE

Mankomunitateko Gobernu Batzordeak eguaztenean egindako bilaren aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio zuzendaria Pilar Aranak egin zuen berba gobernu batzordeko kideekin. Taxi zerbitzua hobetzeko Aldundiak egin duen ordenantza fiskala aurkeztu zien. Horren gainean egin genuen berba Aranarekin.

Zertarako balioko du Aldundiak egin duen ordenantza berriak?

Egun Gipuzkoan dagoen taxi zerbitzuaren kalitatea hobetzeko balioko du. Aspaldi dihardugu Aldundian taxi zerbitzuaren eta taxilarien gainean azterketak eta ikerketak egiten.

Orain udal guztietarako baliagarria den ordenantza estandarra egin dugu, eta horixe aurkeztu dihardugu.

Ordenantzak bi puntu nagusi ditu. Zeintzuk dira?

Alde batetik, taxi gidarien formazioari dagokiona, eta beste alde batetik, gidari guztiak taxi-irratia baten barruan biltzearena. Aldundian uste dugu oso inportantea dela taxilariak formazio ona izatea, euren betebeharrak zeintzuk diren jakiteko, besteak beste. Gidari batek taxi lizentzia saltzen duenean, ezin dio edonori saldu. Lizentzia erosleak formazio egokia beharko luke.

Bestalde, gidariak taxi-irratian sartuta egotea beharrezkoa lirateke. Gipuzkoan, orain dela 2 urte eta lau hilabete jarri zuten martxan irratia, Aldundiaren laguntzarekin. Gidari batzuek erabiltzen dute taxi-irratia, baina beste batzuek, ez.

Taxi-irratia erabiltzearen abantaila asko dira; besteak beste, zerbitzu hobea eman ahalko

diere erabiltzaileei, partikularrei zein enpresetako ordezkariari. Horregatik guztiagatik, ordenantzaren helburua da erabiltzaileei zerbitzu ahalik eta onena ematea.

Udal bakoitzak erabaki behar du zer egin ordenantzarekin?

Bai, hala da. Gai honetako eskuduntza udalena da. Bakoitzak erabaki behar du ordenantza dagoenetan onartzen duen edo aldaketak egiten dituen.

Bestalde, ze puntutan dago Debagoieneko autobus azkarrak?

Bus azkarrak Debagoieneko ezar daitezkeen aztertutako proiektua orain dela hilabete esleitu genuen. Eurekin adostutako epeak betetzen badira, ekainerako gertu izango dute.



Pilar Arana Mankomunitateko bilera hasi aurretik.

M.B.

Zertan datza azterketa hori?

Alde batetik, Foru Aldundiarekin egingo dute berba gure asmoak eta ideiak zeintzuk diren jakiteko; eta beste alde batetik, Debagoieneko udal guztiaren egongo dira, eta euren interesak ezagutuko dituzte. Gainera, baldintza teknikoak aztertuko dituzte: bus azkarrak nondik nora, nola... egin daitezkeen, eta zelako sistema izango litzatekeen; eta baldintza ekonomikoak: zenbat kostatuko litzatekeen, ze baliabide izango genituzkeen... Bukatzeko, jendartean aurkeztuko dugu, erabiltzaileen iritzia ezagutzeko.

Ion Murgizu Pinturak

Margoketa orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrialak
- Eskaiola eta pladurra

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara Esozia 24- 2º behe • Soralue

Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30



Arrasateko udaletxeko osoko bilkuran egin zuten prentsaurrekoan 50 lagun izan ziren.

A.E.

POLITIKA > BORROKALDIA

Baraualdia hasiko dute gaur euskal presoek eta haien senideen alde

Baraualdia Arrasateko osoko bilkuran egingo dute, domekara arte; presoak egiten dabilzan baraualdia babestu egin gura dute horrela

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Konpromezu ueña, konpromezu urtea, horrela definitu dute 2010a preso politikoen aldeko talde eta kolektiboek. Urtarrilaren 2an Bilboko kaleetan erakutsi zuten konpromiso hori 44.000 lagunek baino gehiagok; eta, konpromiso horri jarraipena emateko, hainbat ekintza antolatu dituzte datozen egunetarako. Debagoienari dagokionez, Arrasateko Udaleko osoko bilkuran martitzenean egindako prentsaurrekoan eman zuten ekimenen berri.

ESPETXE POLITIKAK SALATU
Debagoieneko euskal preso ohiak, presoek senideak, Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideak eta LAB eta ESK sindikatuko kideak egon ziren prentsaurrekoan.

Euskal presoek defentsan norbanako zein eragile politiko eta sozialen konpromisoak definitu

eta aktibatu zituzten. Esan zuten "Espainiako eta Frantziako estatuetako gobernuetako bulegoetan diseinatutako espetxe politikak" salatzen urtea izan behar duela 2010ak.

Politika horren aurrean euskal presoek kolektiboak neurriak hartu ditu eta dagoeneko borrokan dira. Euskal Herrian zabaldu beharreko prozesu demokratikoari bultzada ematea eta "espetxeetan dauden muturreko egoerak gainditzea" dira kolektibo horren aldarrikapen nagusiak. Baita gaixo larri dauden eta zigorra beteta duten presoek kale-eratzera ere. Hori aldarrikatzeko hainbat ekimen egingo dituzte; besteak beste, dagoeneko hasi duten baraualdia.

HERRITARREN BABESA
Euskal presoek kolektiboak hasi duen borrokaldia oihartzuna eta babesa izango du kalean ere.

"Guk ere gure ekarpena egin gura diogu presoek eta senideen eskubideen aldeko borrokari", esan zuten prentsaurrekoan. Hala, aste bukaeran egingo duten baraualdiaren berri eman zuten, eta baita horren inguruan antolatuko duten ekimenen berri ere.

BARAUALDIA ETA MANIFESTAZIOA
Baraualdia Arrasateko osoko bilkuran izango da, eta parte hartu gura duenak atek zabalik izango ditu.

Beste ekimen garrantzitsua urtarrilaren 31n, domekan, egingo duten manifestazioa da. Arrasateko plazatik aterako da, 18:00etan, *Gaixo larriak eta zigorrak beteta duten presoak etxera! Eskubide guztien jabe Euskal Presoak Euskal Herrira!* lelopean. Bestalde, herri guztietan hileko azken egubakoitzetan elkarretaratzeko egiteko dei egin dute.

Ibarreko presoek dagokienez, Jon Agirre, Josu Uribeetxeberria eta Jose Luis Elkoro gaixo larri daude; eta Jose Ignazio Gaztañagak, Luis Mari Azkargortak eta Jon Agirrek berak dagoeneko bete dute ezarritako zigorra.

etxeko leihotik



Goiatz Arana > goarana@goiena.com

Des-kontrolen saiorik ez, deskontrola bai

Asteon, hedabide ezberdinek hitz egin dute Des-kontrol taldeari buruz. Tamalez. Arrasateko musika taldea ez baita albiste egindako lanagatik, jasotako egurragatik baizik. Joan den asteko bariku gauean izan zen, Euskal Herrian bertan, euskal herritarren artean. Barakaldoko San Bizente jaietan, txosnetan, kontzertua ematekoak ziren; baina ez zuten ezer ematerik izan, soinu probak egin eta egurra jaso baizik. Eta nolako egurra! Euretako bati medikuak esan zion ospitalean, hartutako kolpea apur bat beherago eman izan baliote, bereak egin zuela. Eta hori da ulertzen ez dudana: nola izan gaitezkeen gai burdinazko barrak eta beste hartu eta aurkariari gupida barik emateko, bertan seko gera daitekeen jakitun.

Badakit zeresana eman duela kontu honek eta askotariko iritzia daudela. Ez nuke ur handitan sartu nahi, ez inor mindu nahi; ez batzuen ez beste alde egin nahi. Baina zerk justifikatzen du lehengo egunean gertatutakoa? Nor da inor bere ideiak eta besteek ezberdinak direla esateko? Eta, zer, hala badira ere? Ez dut konpartitzen gertatu dena; eta ezingo nuke ontzat eman paperak alderantziz izan balira ere –erasotzaileak erasotu eta erasotuak erasotzaile—. Eskerrak Barakaldoko deskontrola ez zen haratago joan; bariku gaueko zauri fisikoak osatuko dira; ez-fisikoak ere goxatuko al dira!

"Zerk justifikatzen du lehengo egunean Barakaldon gertatutakoa?"

> Potemkin musika talde oñatiarrak kalean du lan berria; atzo aurkeztu zuen Donostian. Tourra, baina, abenduan hasi zuten: etxean eman zuten lehen kontzertua; ondo egina! Asteburu honetan Zornotzako Idaba aretoan joko dute.

> 'Herrixa dantzan' ekimena domekan jarriko da martxan. Ea lotsa etxean utzi eta dantzan ikastera ausartzen garen! Hilabete bakoitzeko azken domekan da hitzordua, 19:00etan, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Etzi, lehena.

> EKONOMIA

Julio Gallastegi Elias Atutxari hartuko dio erreleboa Euskadiko Kutzako zuzendari karguan

Julio Gallastegi izango da aurrerantzean Euskadiko Kutzako zuzendari nagusia. Arrasatearra da Gallastegi eta 52 urte ditu. Enpresa Zientzietan lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean. Gaur egun, Lagun Aro EPSV Mutualitateko zuzendari nagusia eta Euskadiko Kutzaren Kontseilu Errektoreko lehendakariordea da. Elias Atutxari hartuko dio erreleboa Gallastegik.

HITZALDIA

Liburu aurkezpena eta hitzaldiak Kulturaten

Zapatuan, *Burdinen arteko herria* liburua aurkeztuko dute Kulturaten, 12:30ean. Euskal presoek kolektiboak idatzitako liburua da, eta bertan, euskal presoek historia laburtzen dute. Herriz herri dabilza liburua aurkezten; hori dela-eta, zapatuan gurean izango dira. Gainera, liburua salgai jarriko dute Debagoieneko liburu-dendetan.

Bestalde, zapatuan bertan, liburuaren aurkezpenaren ondoren, Amaia Arrieta preso ohiak hitzaldia egingo du. Arrietak emakumearen ikuspuntutik aztertuko ditu espetxeak. Gazteen ikuspegia ere erakutsi gura dute; baina oraindik erabaki barik dago nork egingo duen berba.

DATUA

35

IBARREAN DAUDEN PRESOK

Debagoieneko dauden euskal presoak 35 dira; eta, horietatik bakarra dago Euskal Herrian. Besteak dispersaturik daude, martitzenean salatu zuten bezala, etxetik ehunka kilometrotara.

> PRESOK

Arantzabalen eta Garaiondoren presoaldi prebentiboa bi urtez luzatzeko eskatu du fiskalak

Bi urte beteko dira Aitor Arantzabal eta Mikel Garaiondo beragararrak preso daudela. Hain zuzen, 4/08 sumarioaren barruan prozesatuta daude. Bada, orain, presoaldi prebentiboa beste bi urtez luzatzeko defentsa egin du Auzitegi Nazionalako fiskal Vicente Gonzalez Motak. Ezker abertzaleko bederatzi kiderendako eskaera bera egin du fiskalak. Tartean dira, besteak beste, Fernando Barrena eta Karmelo Landa.



**Haur eta
Lehen Hezkuntza
DBH - Bigarren Hezkuntza**
MATRIKULAZIOA
Otsailaren 1etik 12ra

goieskola



debagoienero euskal
eskola publikoa

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Eskoriatza/Gatzaga

Luis Ezeiza Eskola

Bilera eta ate irekiak:
Otsailak 8, 18:00
Tel.: 943 71 49 38

Aretxabaleta

Kurtzebarri Eskola

Bilera: Urtarrilak 27
Euskaraz: 18:00
Gaztelera: 19:00
Tel.: 943 79 00 49

Arrasate

Arrasate Herri Eskola

Bilera:
Bedoñaben Otsailak 1, 18:00
Musakolan Otsailak 3, 18:00
Tel.: 943 79 20 69

Aramaio

San Martin Eskola

Bilera: Otsailak 1, 17:30
Ate irekiak: 19:30ak arte
Tel.: 945 44 50 04

Bergara

San Martin Agirre Eskola

Bilera: Otsailak 2, 18:30
Ate irekiak:
Otsailak 6, 16:30-19:30
Tel.: 943 76 21 47

Antzuola

Antzuolako Herri Eskola

Informazioa:
Otsailak 1etik aurrera
Tel.: 943 76 62 68

Elgeta

Elgetako Herri Eskola

Informazioa:
Otsailak 1etik aurrera
Tel.: 943 76 82 26

Oñati

Errekalde Herri Eskola

Ate irekiak:
Urtarrilak 30, 17:00-19:30
Tel.: 943 78 07 64

BIGARREN HEZKUNTZA

Arrasate

Arrasate Institutua

Bilera:
Musakolako eraikuntzan
Otsailak 2, 18:00
Aramaio San Martin Eskolan
Otsailak 3, 18:00
Tel.: 943 79 44 47
Tel.: 943 79 20 38

Aretxabaleta

Kurtzebarri BHI

Bilera: Otsailak 2, 18:00
Tel.: 943 79 57 40

Bergara

Ipintza Institutua

Bilera eta ate irekiak:
Otsailak 3, 18:30
Tel.: 943 76 31 42

Oñati

Zuazola Larraña Oñatiko BHI

Bilera eta ate irekiak:
Otsailak 9, 18:00
Tel.: 943 78 12 68

**guztiona,
guztion artean**

goieskola@euskalnet.net

www.goieskola.net

 605 773 992



euskal eskola publikoa

Politika eta lan kontuez jardun dugu Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusiarekin. Sindikatuz abertzaleek egindako dekalogoaz, egungo krisiaz eta horretatik ateratzeko neurriez, Lopezen Jaurlaritzaz... Baina baita ezker abertzalearen eztabaida prozesuaz, ETaren azken agiriarekin eta EAK eta ezker abertzaleak bultzatu nahi duten polo subiranistaz ere.

Ainhoa Etxaide > LABeko idazkari nagusia

"Aberastasuna esku gutxitan batzeko bitarteko bihurtu da politika fiskala"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Ainhoa Etxaidek (Hondarribia, 1972) bi urte egingo ditu maiatzean LABeko idazkari nagusi. Ikasketaz Zuzenbidean lizentziaduna da eta LABera iritsi aurretik bi urtez izan zen Ikasle Abertzaleak elkarteko zuzendaritzako kide.

Krisiari aurre egiteko dekalogo egin duzue sindikatu abertzaleek. Zergatik dekalogo?

Batetik, proposamen eta aldarrikapen zehatzak egiteko; langileok bizi dugun egoera aldatzeko neurri egingarriak mahaiaren gainean jartzeko; bigarrenik, elkarlanean gauzak alda daitezkeela sinisten dugulako; hirugarrenik, langileei eskaintza bat egiteko, uste baitugu langileen eskutik etorriko direla aldaketak, beste batzuek baztertu egin dutelako aldaketak egitea.

Zer jasotzen da dekalogoan?

Oinarrian diogu krisi hau politika molde konkretu batzuek sortu dutela eta ildo horretatik segitzeak, politika horiei eusteak, ez duela krisi honetatik ateratzeko aukerarik ematen. Krisi hau azken 15 urteotan langileok pairatzen gabiltzana da. Dekalogoan 10 neurri egingarri proposatzen dira, aplikatzen direnak Europako herrialde aurreratuenetan, langabeziari dagokionez gu baino hobe dauden herrietan.

Gobernuek, enpresaburuek, kasu egin diote dekalogoari?

Gaur da eguna inor ez dela atera neurri horien aurka. Baina, era berean, neurri horiei bizkar ematen segitzen dute. Arazoa ez da dekalogoari bere horretan erantzun aldekoa ematea, baizik eta dekalogo horrek azaltzen dituen arazoei bizkar ematen zaiela. Aberastasuna banatzeko neurriak hartzea da gakoa: politika fiskala aldatu, gastu publikoa handitu, zerbitzu publikoak gehitu...

Sindikatu gehienek bat egiteko gauza izan zarete.

Ezberdintasunak baditugu dekalogo sinatu dugun ELA, EHNE, LAB, Hiru, EILAS eta ESK sindikatuon artean, baina arazo potoloa daukagu, kapitalak bat egin duelako eta klase politikoak ere bat egin duelako kapitalarekin. Langileok ezin gaitezke egon zatituta.

Eta UGT eta CCOOekin zer?

Sindikatu horiek, azken hamabost urteotan, babes eman



Aurtengo maiatzean bi urte egingo ditu Etxaidek LABeko buru; argazkian, martitzenean Arrasaten.

ENEKO AZKARATE

diote krisia sortu dutenei. Bestalde, gehiengo sindikala osatzen dugunok ez dugu bat egin UGT eta CCOOekin, baina ez dugu batasun baztertzailerik osatu, logika baten ondorioa da, besterik ez.

Lopezek dio zortzi hilabeteen akordio gehiago lortu dituela Jaurlaritzan aurrekoek 10 urtean baino.

Jaurlaritza honen meritua da lehengoan ildo beretik jarraitzea eta aldaketarik ez egitea batzuen adostasuna lortzeko. Horrek ez du egoera berririk sortzen langileondako. Lopezek agintea hartu du aldaketaren izenean, baina Euskal Herriak behar dituen aldaketarako politikak baztertu edo saihestu egin ditu.

LABek ezetz esan dio Lopezek egindako elkarrizketa mahaia osatzeko deia. Zergatik?

SINDIKATUEN DEKALOGO

"Dekalogoko neurriak aplikatzen direnak Europako herrialde aurreratuenetan"

JAURLARITZA BERRIA

"Lopezek meritua da aldaketarik ez egitea batzuen adostasuna lortzeko"

POLO SUBIRANISTA

"Ondo ikusten dugu burujabetzan gure erreferentzia daukagunoi eskaintza politikoak egitea"

Elkarrizketa mahai hori gehiago da bere politikak aurrera ateratzeko edo babesak lortzeko, mahaiaren bueltan eseriko lirakeen eragileekin politikak eztabaidatu eta adosteko baino.

Zer iritzi duzu Lopezek sortu nahi duen aholku-emaile taldearen gainean?

Lopezek guztion begietan ipini du non dagoen herri honetako benetako elkarrizketa. Salatu dugu hainbatean elkarrizketa sozialik ez dagoela, edo erakundeek enpresaburuekin egiten dituztela. Hori antzematen da egiten diren politiketan. Mahai honek erakusten du zenbateraino den ahula oraingo Jaurlaritza.

LAB kritikoa da diputazioen politika fiskalarekin. Zergatik?

Politika fiskala indargabetu delako aberastasuna banatzeko bitarteko bezala. Gehien daukan ekarpen handiena egin deza-

la eskatzen dugu, baina diputazioen politika fiskalekin langileok egiten ditugu ekarpen handienak. Aberastasuna esku gutxitan batzeko bitarteko bihurtu da politika fiskala.

Ze balorazio egiten duzu urteotan LABeko idazkari nagusi ohi Rafa Diez eta ezker abertzaleko beste kide batzuen azkeneko atxiloteta eta auzipetzei buruz?

Ezker abertzalearen apustu politikoen aldeko erabakiak baldintzatzeko ekimena da hauen auzipetzea. Batez ere eztabaida horietatik etor daitezkeen bide berriak saihesteko eraso. Pertsona horien atzean apustu sendoak daude, oinarri sozial sendoa, asko gara bide politikoen aldeko apustuaren alde gaudenak.

Ezker abertzalea eztabaida batzarretan murgilduta ibili da azken hilabeteotan, herririk herri. Zer aterako da hortik?

Geroago eta gehiago gara uste dugunok aldaketa politikoa euskal herritarren eskutik etorri behar duela eta hori horrela izan dadin prozesu demokratikoa ezinbestekoa dela aldarrikatzen dugunok. Eztabaida saio horietatik espero dugu urrats erabakigarriak egiteko eskaintza eta erabaki politiko sendoak etortzea.

Zelan interpretatzen duzu ETaren azken komunikatua?

Baditu gauza positiboak, testuinguru batean kokatzen da. Iniziatiba politikoak hartzeko aukera badagoela ikusten den une batean egina dago.

Bateragarriak dira ETaren jarduna eta ezker abertzalearen bide politikoen aldeko hautu garbia edo eragileen arteko elkarlana?

Batzuendako oztopo izango da. Biolentziarik gabe, esku-sartzerik gabe, mugarik gabe, euskal herritarroi hitza eman behar zaigula adostu behar dugu eta horretarako prozesu bat beharrezkoa da. Horrek zelakoa izan behar duen adostea edota joko arauak finkatzea da oinarritzkoa. Joko arauak esango dute zer egin daitezkeen eta zer ez.

Polo subiranistaren gainean zer iritzi daukazu?

Burujabetzan gure erreferentzia daukagunoi eskaintza politikoak egitea ondo ikusten dugu.

Kutxa Inbertsio Irtenbideak



6 Up Gordailu Berria. Inbertsio ezin tentagarriagoa.

6 Up Gordailu berria errentagarritasunik gozoena lortzeko osagai-konbinazio ezin hobez prestatua baitago. Zatoz **kutxara** eta dasta ezazu aho-zapore ezin gozoagoa utziko dizun inbertsio hau.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**



zabalik

Andoni Urtzelai

Hemendik hara

EKON. Durangoko antzokian emandako Ekon-en azken kontzertuan izan nintzen, eta zinez, sekulakoa izan zen. Beraien musika askorik gustatzen ez zaidan arren, beti miretsi izan ditut taula gainean erakusten duten trebeziagatik. Pantaila erraldoiak, sua eszenatokian... talde handiek eskaini dezaketzen ikuskizunaren pare-parekoa. Beraz, txalotzekoa Ekon-en ahalegina. Euskal Herrian ez du inoiz beste inork haiek egiten zutena egiteko adorerik izan. Zorte on eta mila esker!

MEZULARIA. Maite Artolak mezularia utzi duenetik, noraezean bezala nabil ni. Hark zuen zorroztasuna, erritmoaren kontrola, umorea eta batez ere inguruan zituen solaskideen berbak izugarri faltan botatzen ditut arratsaldero. Umezurtz sentitzen naiz, hara. Jaime Otamendik har-
tu du haren lekukoa, eta benetan, etorri handia daukan arren, irrat-
saio zaharra egiten duela irudiz-
tzen zait, desfasatua, *rancioa*. En
fin. Patxi Lopez eta enparauen esti-
lo berriaren beste erakusgarri bat
akaso? Nork jakin!

HAITI. Nire burua analizatu beharra daukat. Lurrikara gerta-
tu zenean, informatiboetako irudiek nire onetik atera ninduten: aberatsek (Frantziak eta AEBek batez ere, guk geuk beraz) espoliaturako herri ziztrin horri falta zitzaiona!, pentsatu nuen. Bi egunera otera, bankura joan eta 100 euro sartu nituen MSFren kontuan. Eta, nola diren gauzak, harrezkero irudiak ikusi eta nola esango nuke? Erosoago sentitzen naiz, gusturago, munduaz bake-
ak eginda banengo bezala. Kurioso, ezta? Tira, honekin ez dut esan nahi aurrerantzean gobernuz kanpoko erakundeak diruz laguntzen segituko ez dudarik edo ikusten ditudan eskalei lau sos emango ez diedanik, hori gutxienik zor diot neure buruari, baina... ez dakit ba, halako egonezin ulertezin bat dabilkit barruan... hausnarketa behar dut, bai.

**"Jaime Otamendik irrat-
saio zaharra egiten du, 'rancioa',
desfasatua"**

usteak uste

Arantzazu Ezkibel

Gizakia, errukigabea eta krudela

Haitiko hondamendiaren ondoren, gizakiok zein puntutara iristeko gauza garen ikusi dugu. Ez da lehenengo aldian horrelako zerbait gertatzen denean gizakia errukigabe eta krudel agertzen dena. Bete bezala, ahulena dira krudel-tasun hori ordaintzen dutenak; kasu honetan, umeak. Hainbat GKEk salatu dute ospitaleetan umeak bahitzen hasi direla. Horren atzean mafiak daude, itxuraz; baina badakigu benetan zer dagoen bahiketa horien atzean, eta gure gizarteak lehenengo mundua ze probetxu izaten duen?

gutunak

Gertatutakoa jakin dadila

Cesar Beato 'Ñako'
(Des-kontrol taldekoen izenean)
Arrasate

Ostiral gauean Barakaldon jazotako gertaeren aurrean Des-Kontrol taldeak honako hau jakinarazi nahi du:

Orain dela bizpahiru aste ezezagun batzuek San Vicente auzoko jai batzordera jo zuten Des-Kontrol taldearen kontzertua bertan behera uzteko esanez. Antolatzaileak zalan-tzan egon ziren zer egin, baina, gerora, aurrera egitea erabaki zuten. Guri ere galdetu ziguten, eta kontzertua egitearen alde agertu ginen.

Afalten geundela, antol-
tzaile batek jakinarazi zigan txosnagune inguruan 50 bat pertsona zain genituela taldekoei kontra egiteko asmoz. Ez genuen sinistu horrenbeste izango zirenik, eta are eta gutxiago gu erasotzeko asmotan etorriko zirenik. Bakarrik probokatzer a etorri zirela pentsatu genuen. Txosnagunera joateko korridore antzeko baten aurkitu genituen eta han gutako bati zuzendu ziren. Berak ezer esan aurre-tik, atzetik burdin barra batekin buruan jo zuten eta lurrera jausi zen. Jarraian, besteoi gauza bera egin ziguten. 50 bat izango ziren, batzuk aurpegia estalita, burdinazko barrekin, botilekin, ukabil amerkarrekin, ostikadak lurrean geundela... Oso azka-
rra izan zen guztia, eta oso ondo planifikatuta zuten guztia. Gainera, gero kontura-tu ginen kontzertuko beste sarreran ere beste batzuk zain zeudela erasotzeko eta haiei laguntzeko.

Batzuk anbulantzian eraman gintuzten eta beste batzuk bere kabuz jo genuen ospitalera. Han ezezagun horiek erasotu zituzten lauzpabost gaztetxo zeuden. Gazte horiei eta haien senideei elkartasuna adierazi nahi diegu. Gurekin harremanetan jartzera gonbidatzen ditugu. Eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu

une larri horietan lagundu gintuztenei ere; beraiek badakite zeintzuk diren.

Atenditu gintuzten osasun zerbitzuek ohartarazi ziguten buruan jasotako kolpeetako asko min oso larria egiteko puntu zehatzetan izan zirela. Taldekideetako batek zortzi puntu ditu buruan; beste batek lau puntu buruan eta mokorrean zauri handi bat; hirugarren batek bi puntu buruan, kolpea sudurrean eta ubeldurak begian eta atzamarretan; laugarrenak eskua apurtuta, zauriak lepoan eta belarrarian eta kolpe ugari bizkarrean; eta bosgarrenak kolpeak ditu gorputz osoan.

Jendeak gertatutakoa jakitea nahi dugu, honek ez dauka izenik; eta laster erabakiko dugu eraso honen aurrean zer egin. Une honetan eraso epaitegiatan dago.

Des-Kontrolak ez du ezer Herri Norteren aurka, baina ziurtasunez dakigu erasotu gintuztenok Herri Norte barruan daudela.

Guk ez daukagu ezer justifikatzeko. Gure jarrerak eta konpromisoak egunerokotasunean erakusten dute hori.

Justifika ezina eta epaitu beharrekoa da erasotzaile horien jarrera.

Jaiotza lapurtu eta txikitu

Iker Zelaia
(San Andres Kooperatibako lehendakaria)
Oñati

Honen bitartez, San Andres kooperatibako zuzendaritzak pasa den Eguberriaren Olakua-ko uharkan jarritako jaiotza lapurtu eta txikitu izana salatzen du. Ez da eraso hau jasan duen lehen aldia; beraz, ez da ulertzen zer lortu nahi den horrelako ekintzekin. Kooperatibak urtero jarri ohi du jaiotza apaingarri gisa Eguberriaren, eta ez inori molestaturiko dion ustetan.

Besarkada bat

Aritz Etxebarria
Gasteiz

Ez ditut pertsonalki ezagutzen Des-kontrol taldekoak, euren musika ez dut bereziki atsegin, ezta estetika edo mezuak ere. Baina ez dago eskubiderik jaso duten egurren jasotzeko. Zer gertatzen da? Gazte koadrila batek beste bat modu horretan egurtzeko? Zer biolentzia hori erabiltzeko? Gaixo dago gizarte hau eta horrelakoak dira horren adierazle. Besarkada bat eta animuak, Des-kontrolkoek.

IRAKURLEAREN GUTUNAK

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da kome-
ni 1.900 karaktere edo 50 lerro bai-
no gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13

ZUZENKETA

Astelehen honetako GOIENKARIAN albiste bat ez da zuzen argitaratu; hain justu ere, Aitor Arantzabal eta Mikel Garaiondori dagokiona. Albistean aipatzen zen Auzitegi Goreneko Arlo Penaleko Salak beste bi urteko zigorra jarri diela bi preso bergarrei. Hori ez da zuzena. Fiskalak eskatu du Arantzabal eta Garaiondori beste bi urtez luzatzea presoaldi prebentibo. Barkamenak eskatu nahi dizkiegu irakurrei eta, bereziki, bi bergar horien senidei.

Goienkaria

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzua Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAKO Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria: Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Salletako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a); Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitate) Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Oxel Arrieta, Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berebizar, Aintzane Muruamendiaraz Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAKO 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Post-a: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritzako



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaleto Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Elgeta > 26 Aramaio > 27 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Garagartzarrak kezkatuta daude etxebizitzak egiteko asmoarekin > 12



> **OÑATI**
Parrokiako kaperan hasi dira mezak esaten, lanak bukatuta > 21



> **ARETXABALETA**
Herritarren galderak jasoko ditu 'Arratabe' udal aldizkariak > 23



> **ARAMAIO**
Eguneko zentroa egiteko hitzarmena egin dute asteon > 27

Urriari herria ezagutu zuten San Pablo CEUko Arkitekturako ikasleek

Hirigintza proposamen batzuk egin dituzte, eta 20 ikusgai daude

Proposamenok ez dira egitekoak, baina ideia batzuk erabil daitezke

JULEN IRIONDO-LEIRE KORTABARRIA > ARAMAIO

Joan den urrian, Aramaion izan ziren Madrilgo San Pablo CEU unibertsitateko Arkitekturako 60 bat ikasle, herria eta bailara ezagutzen, eskolako lan baten barruan, eta lan horren fruituak ikus ditzakete orain aramaioar guztiak Sastiñako ermitan ipini duten erakusketan. *Aramaio hirigintza-plangintzako lantegiak: ikuspegiak Unibertsitatetik izenburupean aurkeztu zituzten erakusketan ikasleek egindako lanetatik 20, irakasleek aukeraturakoak.* Aramaio Udaleko, San Pablo CEU unibertsitateko, Arabako Foru Aldundiko eta Arabarri ondarea berreskuratzeko eta sustatzeko sozietate publikoko ordezkariak izan ziren aurkezpenean, martitzenean.

Proiektuetan, hirigintza planteamendu edo proposamen batzuk egiten dira. Proiektuak arlo askotarikoak dira: mugikortasuna, ekologia... Benetan bitxiak dira batzuk: hala, bada, unibertsitate campus bat proposatzen duenik, edo bizi izateko baserri multzo erresidentzial bat, eta baita Aramaion astronomia-behatoki bat ondo legokeela iradokitzen duenik ere. Horiek guztiak San Martin ermitan bisita daitezke otsailaren 12ra arte.

APROBETXA DAITEZKE

Proiektuok ez daude eginda aurrera eramanez, Arabarriko arkitekto Sebastian Bayok azaltzen digun moduan: "Giro akademikotik egindako planteamenduak dira, modu askean; hau da, inongo baldintza politikoko edo ekonomikoko gabe. Denetarikoa proposamenak daude, batzuk beste batzuk baino anbizio handiagokoak, baina denak datoz bat hiriko edo bizi izateko elementu bat proposatzen, ikuspegi orokorretik abiatuta". Udaleko arduradunek aurkezpen egunean esan zuten,

ARAMAIO > ARKITEKTURA

Madrilgo ikasleen hirigintza ideiak erakusketan daude



San Pablo CEU unibertsitateko, Arabarri sozietate publikoko, Arabako Foru Aldundiko eta Aramaio Udaleko ordezkariak.

JULEN IRIONDO

HELBURUAK

"Tailerra egiten dugun eskualdeetan bestelako jarduerak sortu nahi ditugu"

Aramaion egin duten tailerra ez da giro akademikoan hasi eta bukatzen den ariketa soila; hori baino gehiago da; hori da Arabarri Arabako ondarea sustatzen duen sozietate publikoaren nahia. Eta Aramaioa ez da horrelako lehenengo tailerra izan: "Lehenengoa orain dela hiru urte egin genuen, Arabako mendian; eta iaz, Guardian. Emaizta, bai irakaskuntza aldetik, bai ideia-sorkuntza aldetik, oso pozgarria da. Gure asmoa da horri eustea eta beste enuntziatu bat bilatzea datorren urterako", azaltzen du Arabarriko arkitekto Sebastian Bayok. Arkitekturaren ez ezik, historian, antropologian... eta bestelako diziplinetan adituek parte hartzen dute.

Horrekin, honako helburuak bete nahi ditu Arabarri: "Alde batetik, eguneroko arazoengatik gogoeta batzuk sorrarazi nahi ditugu, baina ingurune guztiz aske baten, premia politikoko edo ekonomikoek baldintzatuta gabe. Beste alde batetik, tailerra egiten dugun eskualdeetan, tailerraren inguruko jarduerak sor daitezkeen nahi dugu, zuzenean erakusketarekin edo tailerraren jardunarekin, komertzioekin, tailerrak irauten duen bitartean janariak zerbitzatzen dituzten negozioekin... eta, hitz baten, egunerokotasunetik kanpo dagoen jarduerak bat sortzea".

ikasleek egin dituzten azterketetatik badaude aprobetxatu egin daitezkeen gauzak. Hortaz, beharbada, ez dugu astronomia-behatoki bati erreferentziarik ikusiko Aramaioaren hurrengo plan orokorrean, baina, beharbada, bai bestelako ideia batzuk.

Hala ere, Aramaioaren gaur egungo egoera goraiatu dute Madrilgo ordezkariak, beste inongo elementurik gehitu gabe. Luis Perea San Pablo CEUko irakasleak hauxe esan zuen: "Lanen bat egitekotan, oso kontuz egin beharrekoak izango lirateke, bailaren egungo egoera ezin hobea delako, iraunkortasun eta oreka handiko lurraldea delako; naturak, eraikitako guneez eta bizilagunek elkarbizitza bikaina dute Aramaion".

ARGITALPENEAN JASO DITUZTE

Beraz, erakusketa bisitatzen duenak kontuan izan behar du proposamen horiek tailer baten emaitza izan direla. "Helburua zen gogoeta egitea, kasu honetan Aramaioaren gainean, modu profesionalan zuzendu bako proposamenak sortzeko", esaten du Sebastian Bayo arkitektoak. Horrelako tailer gehiago bultzatu dituzte Arabarri erakundeak eta Madrilgo unibertsitate horrek Arabako beste leku batzuetan.

Oraingo honetan, ikasleak eurak ez dira Aramaioa bueltatu; dena dela, gura lukete etorkizunean itzuli eta herrirako balizko proiektuen gainean euren ekarpena egiten jarraitu. Oraingoz, egindako lana argitalpen batean jasoko dute.

AUZOAK > GARAGARTZA

Garagartzan bi bloke eraiki gura ditu Udalak

Auzotarrak kexu dira: ez dute informaziorik eta eraikinek auzoari kalte egingo diotela uste dute

T. MADINA/J. BEREZIARTUA > ARRASATE
Udalak babes ofizialeko 24 etxebizitzako bi bloke eraiki gura ditu Garagartza auzoan, auzoko plazaren ondoan. Bertan bizi diren hainbat auzotar kexu dira, hamaika eragozpen ikusten baitote proiektuari.

Arazoa ez da, auzotarrek jakinarazi dutenez, ez dutela bizilagunik gura, baina "eraikitzea benetan beharrezkoa bada hor daude, besteak beste, lehengo errugbiko eta futbol zelaiak". Hala ere, uste dute Udalak eraikitzeko asmoa duen 24 etxebizitzaz horiek ez dutela etxebizitzaren arazoa konponduko. Beste kexa batzuk ere badituzte: diotenez, blokeek 13 metroko altuera iza-

tea espero da eta horrek "harresi-efektua" sortuko luke egun dauden bederatzita metroko etxebizitzaren aurrean. Eta gainera, uste dute itxura aldetik ere kalte egingo liokeela: "Auzoaren

sarreran 13 metroko bi bloke eraikitzeak auzoaren baserri-itxura apurtuko luke".

Bestalde, proiektuaren gainean informazio falta nabarmena dutela salatu dute Garagartzako auzotarrek. Hala, zuzenean eragiten dieten hainbat datu ez dituzte ezagutzen.

POLITIKARIEKIN EGOTeko ASMOA

Proiektua hasierako onarpen prozesuan sartuta dago, eta horren kontrako alegazioa aurkeztu dute kaltetuek. Orain, erantzunaren zain daude.

Horrez gain, auzotarren asmoa da udalbatzako alderdi politiko guztiekin egon eta zinegotziek proiektua bertatik bertara ezagut dezatela. Izan ere, susmoa dute hainbat zinegotzik ez dutela proiektua behar den moduan ezagutzen.

DATUA

7.500

EURO

Ez dakite ziur eurek ordaindu behar duten, baina proiektuaren txostenean auzotar bakoitzarendako 7.500 euroko gastuak aurreikusten dira; informazio faltaz kexu dira.



Auzotar batzuk, etxebizitzak blokeak eraikiko dituzten guneari begira.

TXOMIN MADINA

HIRIGINTZA > SAN JOSEPE

Harrobiko ideia lehiaketa jasoko duen liburua udarako kalean izatea espero du Udalak

Udal ordezkarien eta herriko hainbat eragileren artean ideia guztiak aztertuko dira; ez dago data zehatzik, baina aurten izango da

rako espero du liburua eskuetan izatea. Liburu horrekin, prozesu osoaren lehen urratsa amaitutzat joko da. Lehiaketa bera eta ideien aurkezpena jasoko dira bertan.

Gero, dokumentazio guztia jasoko duen liburu hori parte-hartzaileei, lehiaketara aurkeztu ziren guztiei eta herriko hainbat eragilerei banatuko zaie.

LUZE JOKO DU ORAINDIK

Ez dute datarik zehaztu, baina urtea amaitu baino lehen Hirigintza kontseiluak udal ordezkariekin eta herriko hainbat eragilerekin –artean, hezkuntza,

enpresa eta kulturako kideekin–harremanetan hastea espero du. Hala ere, epe luzerako asmoak dira.

BI PROIEKTU, BESTEEN GAINETIK

Bi proiektu nabarmendu zituen epaimahaiak: Tronera eta Harri-zate. Lehenak auzoa biziberritu eta ibaiaren ingurua aprobetxatzea planteatzen zuten aisialdirako, eta bigarrenak, bailara osorako aisialdi-motorra planteatzen zuten, bereziki gazteei zuzenduta. Edozelan ere, Udalak eskubidea du, beharrezkoa ikusten badu, ideia guztiak erabiltzeko.

J.B. > ARRASATE

San Josepeko harrobiko ideia lehiaketa jasoko duen liburua kaleratuko du Udalak, eta Juan Antonio Urdangarin Udaleko Hirigintza buruak sanjuaneta-



Mikel Aramendi hezitzailea, Musakolako haurreskolako lehen umetxoekin. J.B.

HEZKUNTZA > HAURRESKOLA

Gaur da Musakolan izena emateko azken eguna

Haurreskola berria hilaren 11n zabaldu zen; 21 umerendako lekua dauka

harrera gela ere badauka. Udalak adierazi du 21 umetxorendako lekua dagoela, eta orain arte hamabik eman dutela izena. Bestalde, egun hiru hezitzailek dihardute lanean.

GORAKADA MATRIKULAZIOAN

Haurreskola berria egokitzearen arrazoiak da 2007ko urtarrilean eta maiatzean matrikulazio kopuruak gora egin zuela eskola publikoan, eta horrek Bedoñabeko haurreskolan leku eskasia eragin zuen.

Horren ondorioz, bi irtenbide bideratu zituen Udalak: batetik, Bedoñabeko zaintzailearen etxea San Andresko haurreskola handitzeko egokitu zuten; eta bestetik, Musakolako eraikinean haurreskola berria sortzeko eskaera bideratu zuen Eusko Jaurlaritzara.

J.B. > ARRASATE

Urtarrilaren 11 ezkerko Musakolako haurreskolak atea zabali dituela jakinarazi du Udalak, eta gaur amaitzen da izena emateko epea.

Musakolako eskolaren eraikineko beheko solairuan egokitu dute haurreskola berria. Hiru gela ditu: 0 eta 1 urte artekoendako gela bat, 1 eta 2 urtekoendako beste bat, eta erabilera askotariko ikasgela bat. Gainera, besteak beste, sukaldea eta bazkalondoko lokuluxkendako gela bat ere egokitu dituzte, eta

> TXATXILIPURDI

Ate irekien astea gaur amaituko da ludoteketan, eta gaur Usaetxeokoren txanda da

Txatxilipurdik kudeatzen dituen ludoteketan ate irekiak izan dituzte asteon. Eguaztenean Santa Marina auzoko ludotekaren txanda izan zen, atzo Okendoko ludotekarena eta, beraz, gaur Usaetxen egingo dute. Ate irekien jardunaldirako ekintza bereziak antolatuko dituzte; adierazi dutenez, "ekintza erakargarri eta ikusgarriak", gainera. Hala, jolas erraldoiak egingo dituzte.

Hortaz, ludoteka bertatik bertara ezagutu eta haren abantailaz gozatzeko aukera izango dute 3 eta 12 urte arteko haurrek. Txatxilipurdik edozeinendako atea zabali dituela jakinarazi du; eta hau gehitu dute: "Gurekin jolastu eta gozatzera animatzen zaituztegu!". Jardunaldia 17:30 inguruan hasiko da.

> OSPAKIZUNAK

Santa Agedako koruak otsailaren 1erako Karkabal elkartean egin du hitzordua, antolatzen hasteko

Gertu dago otsailaren 4a, Santa Ageda egunaren bezpera. Eta Arrasaten ere Santa Agedako korua hasi da egun berezi hori prestatzen.

Hala, antolatzaileek poltsero, kantari eta laguntzaileei dei egin diete otsailaren 1ean, 21:00etan, Pablo Urangako Karkabal elkartera joan daitezen. Bertan, egun luze eta berezi horretako eguneko plana zehaztuko dute.

Iaz 5.200 euro inguru bildu zituen Santa Agedako koruak. Jasotako diru guztia Caritas elkarteari bideratu zitzaion eta Caritasek arazo ekonomikoak dituztenei eman zion dirua, larritasunaren arabera. Antolatzaileek iragarri dutenez, "aurten ere diru bilketa ondo joan dadin" egingo dute kantuan.

ANIMALIAK > BALORAZIOA

Kaonbi pozik dago, 41 katuk topatu dute-eta etxea azken sei hilabeteetan

Epe berean, 66 katu esterilizatu zituen eta zaurituta zeuden 38 animalia osatu zituen animaliak ondo bizi izatea helburu duen taldeak

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Arrasateko Kaonbi taldeak jakinarazi du abian jarritako kaleko katuen kolonien ongizate eta kontrolaren gaineko programa emaitza onak ematen ari dela. Izan ere, orain dela sei hilabete martxan jarri zenetik gaur arte 41 katuk topatu dute etxea. Taldeak, gainera, balorazio "oso positiboa" egin du, animaliez arduratuta zeuden herritar askoren deiak jaso zituen eta epe horretan.

Horrez gain, animaliak babesteaz arduratzen den taldeak gaineratu du epe berean 66 katu esterilizatu dituztela (42 eme eta 24 ar) eta zaurituta zeuden beste 38 animalia osatu dituztela. Azken horren harira, gogorarazi du horietako batzuek tratatu txarrak

jasan dituztela eta beste 33 gaixotasun birikoak izateagatik tratatuak izan direla.

Kaonbikoen lana ez da hor amaitzen. Erguinen, Makatzenan, Bizkaia etorbidean eta Gazteluondon koloniei estalpea ematen dieten etxetoak jarri dituzte eta taldeko kideak horien garbiketaz arduratzen dira, baita Erguin, San Andres eta Grupo San Juanen dauden askez ere.

BESTE HAINBAT AUZOTAN

Esan bezala, iaz bizilagunen kexak izandako auzoetan zeuden katuen koloniak kontrolatzeaz arduratu zen. Hala, gazteegiak ez ziren beste eme guztiak esterilizatuak izan ziren Erguin, Makatzena, Uribe eta Bizkaia etorbidean. Horren



Katu bat, Uribarri auzoan, jateko prest.

GOIENKARIA

harira, Kaonbik iragarri du arlo horretan jarraituko duela lan egiten beste hainbat tokitan, hala nola San Andresen, Munarren, Arimazubin, *Malvinetan* eta Gru-

po San Juanen. Kaonbik, gainera, esterilizazio kanpaina egin den auzoetan zeuden katakumak erretiratu egin ditu, eta gehienak adopzioan eman.

Azkenik, herritarrei kolaboratzen jarraitzeko dei egin die, 696 28 70 59 zenbakira deituta edo kaonbi.blogspot.com edo kaonbi@gmail.com helbidera idatzita.



UDAL HAUR ESKOLA

umezaintza

0-3 URTE *San Andres, 8*

uribarri

JOKIN ZAITEGI 0-3 URTE *Uribarri etorbidea, z/g.*

MATRIKULA EPEA ZABALIK
OTSAILAREN 1etik 12ra

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu

902 11 20 25
www.arizmendi.eu



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

Arizmendi
ikastola

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Liderra berriro makurrarazi nahi du Ford Mugarri Arrasatek

Barakaldok partidu bakarra galdu du ligan, hain zuzen Arrasateko taldearen kontra; eta domekan errebantxa gogoz etorriko dira

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Aurten talde bakarra izan da Barakaldo makurrarazteko gauza: Ford Mugarri Arrasate (26-27). Partidu hartatik gaur egun lider dagoen taldeak oso gutxi barkatu du: berdinketa bat eta gainontzeko partidu guztiak irabazi egin dituzte.

Eta Edu Orgazen mutilek Barakaldon erakutsitako joko maila errepikatu nahi dute domekan (11:00) etxekoen aurrean: "Partidu guztiak erabat ezberdinak dira. Han gogoan dut eurek 4-5 goleko errenta lortu zutela, eta guk joko sistema aldatu eta arriskatzen hasi ginenean eman genio-la buelta partiduari. Urduri jarri ziren orduan, ez zuten asmatu



Argazkian Basauriren kontrako partiduan, etxekoen jaurtiketa bat.

J.A.

gure eraso zelan defendatu eta etekin ona lortu genuen. Argi dagoena da borroka handiko partidua izango dela eta irabazten duenak gol gutxiko aldeagatik

irabaziko duela", adierazi du Orgazek.

Liga hasieran taldearen helburua iazko zazpigarren postua hobetzea zen, baina sailkapenak

Sailkapena

1. Barakaldo	31
2. Ford Mugarri Arrasate	25
3. CD Egia Promo	25
4. Quiroñ Askartza	24
5. Sucesores de Aguirre	21
6. CB Urduliz	21
7. El Pilar	16
8. Balon. Romo Indupe	13
9. CB Portugalete	12
10. Usurbil	12
11. Club Corazonistas	8
12. Hondarribia	7
13. Indupe Basauri	7
14. Urola Lazti	6

ITURRIA: FVASCABM.COM

zer erakusten duen ikusita, helburu zorrotzagoak zehaztu dituzte: "Bai, uste dut dagoeneko iguera postuetan sartzeko egin behar dugula borroka. Sari polita izango litzateke taldearendako, eta lehia oso estua izango da".

Etxekoak oso bolada onean daude, baina eguaztenean gehiago espero zuten Corazonistas taldearen kantuan jokatu zuten partidutik (32-32).

zaldibar

EMAITZAK

Betrayer-Aldapa	7-3
Dublin-AT Celaya	11-5
Dribling-McAwenDauen	9-4
Lasagabaster-Komando Alpagat	5-1
Cipris-Iluntz	4-2
Ekaitz-Iritzitu	2-7
Fidel & Disc-Abokajarro	5-7
Katenatxio-Steaua del grifo	11-3

PARTIDUAK (KOPA TXAPELKETA)

PARTIDUAK

Urtarrilak 30, zapatua	Epailak
10:30 Fidel & Disc-Katenatxio	Ekaitz
11:30 Ekaitz-Steaua del grifo	Fidel & Disc
12:30 Betrayer-AT Celaya	Steaua del grifo
16:00 Aldapa-McAwenDauen	Dublin
17:00 Dublin-Komando Alp.	Aldapa

Urtarrilak 31, domeka

10:30 Dribling-Iluntz	Lasagabaster
11:30 Lasagabaster-Iritzitu	Dribling
12:30 Cipris-Abokajarro	Iritzitu

SAILKAPENA

	P	J
1. Dublin	24	8
2. Dribling	21	8
3. Iritzitu	19	8
4. Betrayer	17	8
5. Abokajarro	16	8
6. Cipris	15	8
7. Lasagabaster	14	8
8. AT Celaya	11	8
9. McAwenDauen	9	8
10. Fidel & Disc	9	8
11. Ekaitz	9	8
12. Komando Alpagat	5	8
13. Iluntz	4	8
14. Aldapa	4	8
15. Katenatxio	3	8
16. Steaua del grifo	0	8

Informazio gehiago webgune honetan:
www.zaldibarkofutbibtotxapelketa.com



Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
OTSAILAREN 1etik 12ra



Arrasate
Herri Eskola



Guk bezala,
egin apustu, egin kiñu
Euskal Eskola
Publikoaren alde!



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74



Arrasateko Kulturateko liburutegian erabiltzaileak.

A.E.

AZPIEGITURAK > KULTURATE

Astelehenetik aurrera ordutegi zabalagoa izango du liburutegiak

Astegunetan egun osoz izango dute zabalik Kulturateko liburutegia: 10:00etatik 20:30era

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Herritarren eskaerari kasu eginez, Arrasateko liburutegiko ordutegia zabaltea erabaki dute Udalak eta Kulturateko ardura-dunek.

Orain arte astegun eguerdian itxi egiten zuten liburutegia; otsailaren 1etik aurrera, ordea, zabalik egongo da egun osoz. Modu horretan, astelehenetik egubakoitzera bibliotekaren ordutegia hau izango da: 10:00etatik 20:30era, jarraian. Zapatuetan orain arteko moduan egongo da zabalik: 10:00etatik 13:00etara; abuztuaren, 09:30etik 14:30era; eta bestelako

opor egun eta zubietan eta uda sasoiaren, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

BAZKIDEAK: 12.421

Bibliotekako arduradun Mertxe Perez de Cirizak liburutegi zerbitzuari dagozkion datuak eman zituen Kulturaten egindako prentsaurrekoan. 2009an, 12.421 izan ziren bazkideak; horietatik % 86 helduak ziren, 16 urtetik gorakoak. "Garai baten, erabiltzaileak ikasleak izaten ziren; baina orain, ikusten dena da jende heldu asko etortzen dela, egunkariak irakurtzera edo beste zerbitzuren bat erabiltzera", azaldu zuen Perez de Cirizak.

Mailegu kopuruak ere gora egin du; batez ere, 2008an nabaritu zuten gorakada: 2007an baino 12.449 mailegu gehiago egin zituzten; guztira, 63.878. Bestalde, 2009an maileguak 67.859 izan ziren.

Datozen hilabeteetako literatura solasaldiak

Arrasateko bibliotekan prestatu dituzte urte hasiera honetako literatura solasaldiak; hain zuzen, eguaztenean hasi zituzten solasaldiak Fermin Etxegoienekin.

Datozen hilabetei begira, otsailaren 24an Jenny Valentine idazlearen *Violet Park-en bidetik* lanaz berba egingo dute. Martxoaren 31n, ostera, Harkaitz Canoren *Zinea eta literaturaz* jardungo

HERRITARREN EBALUAZIOA

Eudelek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak politika publikoak ebaluatzeko eta herritarren partaidetza sustatzeko egindako hitzarmenaren ondorio da Gizaker enpresak Arrasateko Udalararen eskariz egindako galdeketa. Datuen arabera, arrasatearren

dute. Apirilaren 28an Aingeru Epaltzaren *Tigre ehizan* aitzakia hartuta egingo dute solasaldia. Maiatzaren 26an, Flannery O'Connor eta *Ez da erraza gizon on bat aurkitzea*. Azkena ekainaren 16an izango da: Iban Zalduaren *Euskaldun guztion aberria*. Saio guztiak 18:30etik 20:30era izango dira, euskaraz. Gaztelerazko saioak ere egingo dituzte.

erdiak baino gehiagok erabiltzen ditu Kulturateko zerbitzuak, eta zerbitzu horiek jaso duten nota 10etik 7 baino gehiago da kasu guztietan.

Instalazioen txukuntasunarekin eta langileen profesionaltasunarekin gustura daude herritarrek, inkestaren arabera.

OSPAKIZUNAK

Al-Andalus elkarteak, 20 urteak ospatzen

A.E. > ARRASATE

Atzo afari ederra eginez hasitekoak ziren Al-Andalus elkarteak XX. urteurrenko ospakizunak.

Bihar, zapatua, 19:00etan, Sebastian Fraile artistak flamenkoa eskainiko du; 20:00etan, Barakaldoko Hijos de Almachar taldearen ikuskizuna izango dute; eta 21:30ean, afaria.

KONTZERTU NAGUSIA

Afariaren ondoren, 23:30ean, Blanca de Lunak eskainiko du ikuskizuna. Eguneko protagonista izango da De Luna, duda barik.

Domekan 13:00etatik aurrera dantza eta abesbatza saioak izango dituzte.

> MUSIKA

Gaur eta bihar kontzertuak egongo dira 3 aretoan

3 aretoak musika eskaintza zabala prestatu du aste bukerarako. Gaur, egubakoitza, Antinowhere League eta Gorroto taldeek kontzertua eskainiko dute, 23:00etan hasita. Sarrera da 10 euro aurrez eta 12 leihatilan.

Bihar, Sound of Silence eta Vicepresidentes, 23:00etan hasita. Sarrera da 8 euro.

Elikadura • Naturopatia Erreflexologia Buruko masaje indiarra

Aurretiazko zita: 943 79 05 77

Iturriotz 33, behea 2 ARRASATE

KONTRATAK IRYROK S.L. ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

arbolapeta

arrasate

beinke

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

HIRIGINTZA > DIRULAGUNTZAK

E Planeko diruarekin Irizar etxea berrituko dute

Martxoan hasiko dira lanak eta aurrekontua da milioi eta erdi euro inguru

Udal Euskaltegia eta Helduen Heziketa Iraunkorra jarriko dituzte han, konpondu eta gero

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bergarari Madrilak adjudikatu dizkion bigarren Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondoko 1.594.151 euroak Irizar jauregia konpontzera bideratuko ditu Udalak. Erabat berrituko dute, eta konpondu eta gero, Helduen Heziketa Iraunkorra (HHI) eta Udal Euskaltegia kokatuko dira XVII. mendean Urrutia-Espilla familiak eraikitako jauregian.

Bergarako Zetabi Arkitektura Bulegoak egin du proiektua eta Agurne Barruso alkateak zehaztu duenez, asteon bidali dute Madrilera. Orain, Espainiako Gobernuak onartzea falta da aurrera egin ahal izateko. Hain justu ere, prozedura administratibo guztia bukatu eta gero, Irizar berritzeko lanak martxoan hasiko direla aurreratu du Barruso alkateak.

IRISGARRITASUNA, BERMATUTA

Zetabiko arkitektoek egindako proiektuak bi oinarri nagusi izan ditu: Aldundiaren Ondare Departamentuko teknikariek ezarritako irizpideak—eraikinaren barruko distribuzioa eta izaerak mantentzea, babestutako ondare den heinean—, eta hezkuntzarako erabilera izango duenez, bada, ezaguri horiek dituen egoitza baten beharrak asetzea; bestalde, irisgarritasuna erabat bermatuta izango duela ere aurreratu dute.

Hain justu ere, egingo den lan nagusietako bat izango da igogailua jartzea.

Zetabikoek azaldu dutenez, eraikina, oro har, egoera nahiko onean dago, baina egonkor-tu eta zaharberritu egin beharra dauka. Zaharberritzeari dagokionez, egurrezko zoru originala txukundu eta mantendu egingo dute, eta baita solairuak lotzen dituen eskailera eta haren baranda ere. Eskailerari dagokionez, sendotzeko, eusteko, beharra dauka eta horretarako baliatuko dira igogailuaz. Erabat kristalezkoa izango den igogailua eskailera-begian jarriko dute eta haren egituraz baliatuz eutsiko dute eskailera. Era berean, etxeak dituen gainerako egurrezko elementuak ere berritu eta mantentzen saiatuko dira. Ezinbestean aldatu beharrekoak baino



Jauregia XVII. mendekoa da eta XVIII. mendean teilatu-hegaletik gorako zatia gehitu zion Irizarrek etxea eskuratzean. M.B.

ez dituzte aldatuko. Aipatzekoa da, bestalde, hirugarren solairuaren gainean dagoen teilatuegal tailatuari jatorrizko itxura ere emango diotela.

Sarrera nagusiari dagokionez, hura ere txukundu egingo dute eta arkuaren azpian dagoen egurrezko atea kendu egingo dute, eta kristalezkoa jarri. Bestetik, kalefakzio sistema ere egon-

go da eta segurtasuna bermatzeko suaren kontrako atea jarriko dute solairu bakoitzean.

Kanpoko aldeari dagokionez, leiho eta atea berritu eta margo-tu egingo dute etxea.

ETXEA, SOLAIRUZ SOLAIRU

Sotoa, behe, lehen, bigarren eta hirugarren solairuak eta teilatuepea ditu etxeak eta honela koka-

tuko dira han HHI eta euskaltegia: sotoan bi biltegi egongo dira, Udal Euskaltegiarendako bat eta HHIrendako beste bat, eta instalazioendako gunea. Behe solairuan izango dute bi zentroek bilera gela eta *office*-a eta irakasleendako komunak. Lehen solairua osorik hartuko du HHIk: bost gela eta komunak izango ditu. Bigarren solairuan, berriz, Udal Euskaltegia kokatuko da eta hark zazpi gela eta komunak izango ditu. Hirugarren solairuan hiru gela—euskaltegiak zein HHIk erabiltzeko—, komunak eta 60 bat lagunendako aretoa egongo dira. Areto hori bi zentroek beharra dutenean erabiliko duten arren, bestelako erabilera bat ere eman nahi dio Udalak: "Edozeinek erabiltzeko moduko aretoa izango da hitzaldiak egiteko, batzarrak... hau da, kultura etxeko ganbararen osagarri izango da", gehitu du alkateak.

Gaur egun hainbat erakunde eta elkartek dute egoitza Irizar etxean

Gaur egun Irizar etxea hainbat erakundek eta taldek erabiltzen dute. Han daude GOIENKARIA, behe solairuan; KZgunea, lehenengoan; eta HHI, bigarrenean. Surra irrati elkarteak eta Bedelkar dendarien elkarteak ere badute bulegotxo bana. Hala eta guztiz ere, jauregia berritu eta gero Udal Euskaltegia eta Helduen Heziketa Iraunkorra kokatuko ditu han Udalak. Horrek esan nahi du gainerako taldeek utzi egin beharko dutela eraikina. Bestalde, obrek irau-

bitartean Helduen Heziketa Iraunkorra ere irten egin beharko da handik, gutxienez, urtebeterako.

Horrekin guztiarekin, Agurne Barruso alkateak azaldu du badihardutela esandako erakunde eta taldeendako alternatiba bila: "Aztertzen ari gara bakoitza non kokatu, baina oraindik ez dago ezer erabakita; ez HHI nora eroan lanek irau bitartean ezta GOIENKARIAri eta KZguneari ze irtenbide eman ere; hori guztia aztertzen dihardugu".

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

EDEL
TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kordinak, kortinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA


ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84



**Mariaren Lagundia
ikastola**

Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net



MATRIKULAZIOA

OTSAILAREN IETIK 12RA

2 URTEKO UMEEN GURASOENTZAT BILERA

OTSAILAREN 4AN 18:00ETAN

ZAINDUTAKO HAZIAREN GEROA...

ETORKIZUN OPAROA



GARRAIOA > BONU SISTEMA

Udalak neurriak hartu ditu urbanoa bultzatzeko

Hamar bidaiako bonua autobusean bertan erosi ahal izango dute nahi duten herritarrek, astelehenetik aurrera; bidaia bakoitzak 0,50 euro balioko du

MIRIAN BITERI > BERGARA

Hiri barruko autobus zerbitzua bultzatzeko asmoz, Bergarako Udalak bonu sistema berria martxan jartzea onartu zuen joan den asteleheneko osoko bilkuran. Kontratu amaitu bitartean (2011n), zerbitzu horretako kontzesio-hartzaileekin adostu du bonua erabili nahi duten bidaiariendako izatea eta bonua erosten dutenek 0,50 euro ordaindu beharko dituztela bidaia bakoitzeko. Enara Minguez zinegotziak esan digu hamar bidaia izango dituen bonua urbanoan bertan eskuratu ahal izango dela astelehenean, otsailak 1.

Bestalde, preziook urbano zerbitzuaren kontzesio-hartzaileei eragindako galera ekonomikoa



Bergarako hiri barruko autobus zerbitzua.

MIRIAN BITERI

Udalak bere gain hartzea ere hitzartu dute. Hau da, saldutako bonuen bidaia bakoitzeko, 0,50 zentimo ordainduko dizkio. Zehaztu du, baina, urtean gehiezin 27.000 bidaiari dagokiena ordainduko diola.

EURO BAT, GARESTI

Udalak zerbitzuan bonu sistema berria ezartzeko proposamena egin du kontuan izanda, besteak beste, zerbitzua defizitarioa

dela, oso erabiltzaile "gutxi" delako. Horren harira, ondorioztatu du erabiltzaile gutxi izatearen arrazoa izan daitekeela bidaiak duen prezioa (euro bat) garestia dela, udalerrian dauden distantziatarako. Horren harira, gogorarazi behar da orain arte erretiratuak, ezgaitasuna aitortuta dutenak eta Gizarte Ongizateko laguntza jasotzen duten erabiltzaileak egon direla ordaintzetik salbuetsita.

UDALA > MOZIOA

Udalbatza Aramaioko alkatearen alde azaldu da

Asier Agirreren kontrako prozedura bertan behera utz dezatela eskatu du

M.B. > BERGARA

Aramaioko Udalak mozio baten bidez hala eskatuta, hango alkate Asier Agirreri "babes osoa" helarazi zion Bergarako udalbatzak astelehenean egindako osoko bilkuran, Abiadura Handiko Trenaren gaineko herri-galdeketa egiteagatik otsailaren

10ean egingo dioten epaiketa dela-eta. Horren harira, Arabako Auzitegi Probintzialeko fiskaltzak alkatearen kontra eskatutako bederatzi urteko gaitasungabetze zigorra erretira dezala eskatu zion Udalak; eta, bide beretik, auzi horretako epaileari prozedura bertan utz dezala exijitu zion.

PSE-EE, ABSTENITU

Mozioak udalbatzako kide guztien aldeko botoa jaso zuen, PSE-EEko bi zinegotziak izan ezik; abstentitu egin ziren haiek.

oharrak

ZOKKETA

> Kanela dendak banatu du Gabonetako lehiaketako saria

Asmatu beharreko leloa zen: *Genero indarkeria*, eta asmatzaileen artean saria jaso du Iñaki Kortabarriak.

HITZALDIA

> Prebentzioaren gaineko hitzaldia, gurasoendako

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak antolatu du eta berba egingo dute Familiendako

Orientazio Psikologikorako Zerbitzuko profesionalak. Otsailaren 3an izango da, 18:30ean, kultura etxean.

SANTA AGEDA

> Otsailaren 4an abestera irteko dei egin du Aranzadik

Santa Ageda bezperan eskolako irakasle eta gurasoekin batera abestera ateratzeko dei egin du. 19:00etan aterako dira. Azkeneko entsegua otsailaren 2an egingo dute, 19:00etan.

ORDUTEGI BERRIA

Astelehenetik ostiralera
(ordutegi jarraitua)
9:00etatik 20:30era
Larunbatetan
10:30etik 13:30era
16:30etik 20:30era

Sukalde alemanak
3.290 eurotik aurrera

beitia
living & home
>> Etxerako guztia

Paraguay kalea, 34 (Boulevard ondoan), Gasteiz | Tel.: 945 121 399 | 945 254 588 | Faxe: 945 206 022 | www.grupobeitia.com

> ESKUBALOIA

Jose txo Muniategiren mutilak bigarren daude sailkapenean

Territorial mailan jardunaldiek aurrera egin ahala, Jose txo Muniategiren mutilak bigarren geroago eta aurrerago daude. Azken bost jardunaldietan irabazi egin dute, eta horri esker egin dute bigarren postura salto, Egiaren atzetik, 18 puntu batuta.

Liderra puntu bakarrera dago, eta oraingo asteburuan ahaleginduko dira hura harrapatzen, Amenabarren kantuan puntuak batuta. Amenabar zazpigarrena da.

> ESKUBALOIA

Eskubaloiko hastapen jardunaldia egingo dute domekan

1998an, 1999an, 2000n eta 2001ean jaiotako neska-mutikoei zuzenduta eskubaloiko hastapen ikastaroa egingo dute domekan, hilaren 31n.

Hastapeneko jardunaldien helburua da eskubaloia gaztetxoenei ezagutaraztea, eta, neurri handian, joko eta jolasetan oinarrituko dute saioa. Domekan Labegaraie-tan da hitzordua eta ordu eta erdi iraungo du, 11:30etik 13:00etara.



Denboraldiko proba guztietan izan dira Lokatzako ordezkariak lehiatzen; erretratuan, Ormaiztegiako lasterketa.

XABIER URTZELAI

ZIKLO-KROSA > DENBORALDI AMAIERA

Lokatz arteko lana amaitu dute etxekeok

Sumoficeko ziklistek domekan amaitu zuten emaitza onak eman dituen denboraldia

XABIER URTZELAI > BERGARA

Joan den astean amaitu zuten Ispasterren ziklo-kros denboraldia, eta dagoeneko Lokatzakoek badute beste hitzordu bat begiz jota: martxoaren 6an egingo duten Soralue E. Koop sari nagusia,

errepideko denboraldiari hasiko dute-eta hantxe.

Domekan, Lokatzako gazteek emaitza onak izan zituzten. Taldeko hiru txirrindularik hartu zuten parte, guztiak gazte mailan. Mikel Aristi 7. sailkatu zen, Jon

Rivero 8. eta Hodei Orobengoa 19., hainbat ereriko izan ondoren. Sailkapenari begira emaitza onak dira; izan ere, domekako probak nazioarteko maila zuen, eta, besteak beste, Eslovakiako txirrindulariak izan ziren lehiatzen, Espainiatik etorritakoekin batera.

ATZERA BEGIRATUA

Aurtengo ziklo-kros denboraldian beste aurrerapauso bat egin dute Bergarako ziklistek; lasterketa askotan ibili dira etxekeok, baita Laredon egindako Espainiako txapelketan ere. Gainera, Jon Rivero Gipuzkoako txapel-dunorde izan da eta Mikel Aristik Euskadiko federazioaren saria jaso zuen.

Labegaraieta

EMAITZAK

UD Akabaoak-Los Latinos	18-1
CM Errota-gain-LSJ	22-0
Monte Taberna-Alytis	2-7
Niu Tim-Zigalikitis	7-4
Diego Valor-Irish Pub	5-3
Internacional-Komando Piperrak	2-4

PARTIDUAK

Urtarrilak 30, zapatua	Epaiak
17:00 LSJ-Niu Tim	Diego Valor
18:00 Diego Valor-Los Latinos	Niu Tim
Urtarrilak 31, domeka	Epaiak
09:30 Monte Tab-Irish Pub	CM Errotagain
10:30 CM Errota-gain-K.piperrak	Irish Pub
17:00 Los Latinos-Zigalikitis	UD Akabaoak
18:00 Internaci.-UD Akabaoak	Zikalikitis
19:00 Diego Valor-Alytis	Internacional

SAILKAPENA

	P	J
1. CM Errota-gain	42	14
2. UD Akabaoak	36	14
3. Niu Tim	33	14
4. Los Latinos	27	13
5. Diego Valor Ilea	27	13
6. Alytis FK	27	14
7. Komando Piperrak	16	14
8. Zigalikitis	10	14
9. Internacional	10	14
10. Irish Pub	7	14
11. Monte Taberna	6	14
12. LSJ	3	14

NA aurkeztea, derrigorrezkoa

Oraingo astebururako jokalariek guztiek nortasun agiria aurkeztuta izan beharko dute; bestela, datorren jardunaldian ikusle gisa egon beharko dute, eta ez jokatzen.



Aukera hauek dituzu:

OTSAILAK 3

18:00etan: HITZALDIA
HEZKUNTZAREN GARRANTZIA HAUR HEZKUNTZAN
Hizlaria: Jone Areta

18:30ean: IKASTOLARI BURUZKO BILERA INFORMATIBOA

IKASTOLA BISITATZEKO EGUNAK:

OTSAILAK 7, IGANDEA, 11:30etik AURRERA

Tailerrak
Eskulanak
Jolasak
Ikastola ezagutzeko aukerak

OTSAILAREN 1etik 12ra BISITA GIDATU PERTSONALIZATUAK
Gure proiektua martxan ikusiko duzue haurrak gelan dauden bitartean. Zuzendaritzaren laguntzaz, ikastetxea ezagutu, haurrak beren egitekotan ikusi eta nahi dituzuen argibideak jasoko dituzue.

Zuei ondo datorkizuen orduan libre gaudela ziurtatzeko deitu **943769071** telefonora edo bidali mezua **bergara@ikastola.net** helbidera. (Hitzordurik gabe ere etor zaitezke)

www.aranzadiikastola.org

ETORRIZ GERO, GUK EGINDAKO OPARITXO BAT EMANGO DIZUTE

NIRE IKASTOLA MUNDUKO POLITENA DA ETA NIRE ANDEREÑOAK ETA LAGUNAK ERE BAI Ezagutu nahi dituzu?



ARANZADI
ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

Iñigo Biain > Informatika gelako arduraduna

"Erabiltzaileek harrera ona eman diote informatika gelari, egunero 24 bat lagun datoz"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Gaztelekuko bigarren solairuan dago informatika gela. Astelehenetik egubakoitzera zabaltzen ditu ateak 17:00etatik 20:00etara arte. Urriaren aldaketa batzuk egin zituzten erabileran, eta horiei buruz egin dugu berba arduradunarekin.

Zeintzuk dira informatika gelako aldaketak?

Batez ere, lan egiteko moduari eragiten diote martxan jarri ditugun aldaketek. Izan ere, segurtasun eta garbitasun neurri moduan, *0 puntu* deitu dugun sistema ezarri dugu informatika gelan. Hau da, ordenagailua hasieran konfiguratzeko behar diren programak, jokoak eta softwarea instalatuta, eta ordenagailu hori itzali eta pizten den bakoitzean, *0 puntu* horretara bueltatzen da beti. Aurreko erabiltzaileak egindako aldaketak, instalatutako softwarea edo gordetako dokumentuak desagertu egiten dira. Hori dela eta, erabiltzaileei beti gogorarazten diegu edozer gauza sortzen dutenean *pen-drive* baten gorde beharko dutela, galdu nahi ez badute.

Bestalde, software askearen aldeko apustua egitea erabaki dugu, eta OpenOffice ofimatika paketea instalatu dugu. Hasieran erabiltzaileei kostatzen zaie tresna berri horietara ohitzea, baina berehala ikasten dute.

Zergatik erabaki duzue aldaketak egitea?

Batetik, Windows sistema eragileak sortzen dituen arazoak konpontzeak dituen kostuak txikitzeke; izan ere, *0 puntu*-rekin birusak, spywareak eta beste elementu kaltegarriak ordenagailua itzaltzarekin batera desagertzen dira. Horrela, ez da beharrezkoa orain arte egiten genuen mantentze-lan ikaragarria. Beste alde batetik, gazteek instala dezaketena hobeto kontrola dezakegu, arduradunak bakarrik instala ditzake eta programa berriak.



Iñigo Biain, informatika gelan.

M.B.

"Erabiltzaileen %98 7 eta 12 urteko artekoak dira, baina ez diegu atea ixten helduago diren erabiltzaileei"

Zein da informatika gelako erabiltzaileen profila?

Gure erabiltzaileen %98 dira 12 eta 17 urte bitarteko gazteak. Dena den, aldika, helduak etortzen zaizkigu; besteak beste, bisi-tan dabiltzan kanpotarrak edo Internetez erosketaren bat egin nahi dutenak –bidaia txartelak, erreserbak...-. Baina eguneroko erabiltzaileak ikasle gazteak dira.

Nortzuek erabil dezakete?

12 eta 17 urte bitarteko gazteentzako diseinatuta dago, baina, esan bezala, ez diegu atxeririk ixten hortik gorakoei. KZgunean egiten ez dituzten gauzak egiten

dituzte informatika gelan. Zenbat lagunek erabiltzen dute informatika gela egunero?

Erabiltzaile guztiak erregistratuta gelditzen dira. Azken 3 urteetan, hilabeteko, batez beste, 473 erabiltzaile izan ditugu; egunero, 23-24 erabiltzaile.

Ikastarorik ematen duzue?

Antolatu izan ditugu eta aurrerantzean ere egingo ditugu. Besteak beste, musika eta komikia ordenagailu bidez, argazkigintza digitala eta Aloña Mendirekin batera antolatutako GPS ikastaroak egin ditugu.

Badira zenbait urte arduradun zabilzala; nolako balorazioa egiten duzu?

Erabiltzaileek harrera ona eman diote, eta zerbitzu gisa positiboa dela esango nuke. Dena den, aurrera begira hobetzea da gure helburua, bai eskaintzen dugun zerbitzuan, eta baita zerbitzuaren edukietan.

> HEZKUNTZA

Elkar Hezi ikastetxean askotariko ikastaro eta kultura saio egingo dituzte otsailean zehar

Elkar Hezi ikastetxean kultura saioak egingo dituzte otsailean zehar. Datorren asten, otsailaren 1ean, 2an eta 3an, *Txinatar papiroflexia* ikastaroa egingo dute. Gainera, otsailaren 2an eta 3an neguko euskal kantu eta dantzen gaineko saioa egingo dute; eta otsailaren 12an eta 13an, sukaldaritza txinatarrari buruzkoa. Azkenik, 17an eta 18an batukadaren hastapenei buruzkoa egingo dute.

> JENDARTEA

Olakuako urmaeleko jaiotza lapurtu eta txikitu izana salatu dute San Andres kooperatibakoek

Olakua auzoko San Andres kooperatibako kideak haserre daude Gabonetan urmaelean jartzen duten jaiotzak sufritu duen eraso-agatik. Ezezagun batzuek jaiotza lapurtu eta txikitu egin zuten urtea bukatu aurretik. Kooperatibako kideek jaiotza berria erosi zuten. Salaketa publikoa egin gura izan dute: "Ez da lehen aldia, eta aurrerantzean neurriak hartu beharko ditugu. Jaiotza apaingarri bat besterik ez da, ez dio inori kalterik egiten".

MUSIKA > KONTZERTUAK

'Oñati 2zirik' diskoko taldeek bira egiten dihardute

Kontzertua egingo dute Durangon bihar, eta autobusa irtengo da Oñatitik 14:00etan

ikustera joan gura dutenendako autobusa 14:00etan irtengo da postetxe aurretik. Itzulera 02:00etan egingo dute.

SEI KONTZERTU

Otsail eta apiril artean sei kontzertu egingo dituzte. Hain zuzen ere, otsailaren 20an Arrasaten; otsailaren 26an Iturriagan; martxoaren 13an Oartzunen; martxoaren 27an Donezteben; apirilaren 17an Azpeitian; eta apirilaren 24an Oñatin. Guztietarako autobusak jarriko dituzte. Izenak Arranon eta Pakon eman daitezke.

M.B. > OÑATI

Oñati 2zirik diskoa grabatu zuten taldeek –Bitz, Drakes, Ez!, Galdu arte eta Klina eta Kaka Arrastua Kumunzuluan taldeak– bira egiten dihardute Euskal Herrian.

Horren harira, bihar kontzertua egingo dute Durangoko gaztetxean, 19:00etan. Taldea



Oñati 2zirik diskoko taldeetako ordezkariek.

JOSETXO ARANTZABAL

ETA ZUK, ZER IZAN NAHI DUZU?



TXANTXIKU IKASTOLA

San Juan kalea 1
943 78 12 04
txantxiku@ikastola.net



Irakasle



Mekanikari



Albaitari



Musikari



Nekazari

– Matrikula egiteko epea: OTSAILAREN 1etik 12ra
– OTSAILAREN 3an, 18,30ean, BILERA INFORMATIBOR
– OTSAILAREN 5ean, 17:00etatik 19:00etara ATE IREKIEEN JARDUNALDIA (Potxin eta Patxin pailazoak, jolasak, esku-lanak...)



Euskal presoek bizi duten egoera salatzeko, gaur 19:30ean bilduko dira herriko plazan

POLITIKA > DEIALDIA

Hileko azken egubakoitzetan elkarretaratzea egingo dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Urtea bukatu arte, hil bakoitzeko azken egubakoitzean elkarretaratzea egingo dute herriko plazan, euskal presoek elkartasuna adierazteko eta haien eskubide zibil eta politikoak errespetatu

tezela eskatzeko. Gaur, Gazte Batzarrak deituta, 19:30ean batu-ko dira Foru plazan -hil bakoitzean herriko talde edo eragile batek egingo du deialdia.

Elkarretaratzei buruzko deialdian diote jendartearen impli-

kazioa ezinbestekoa dela: "Herriko eragile eta talde ezberdinen arteko indar metaketa ezinbestekoa da. Guztiona da egoera bidegabe honekin behin betiko amaitzeko erantzukizuna". Gainera, hau azpimarratzen dute: "Oñati-

ko preso politiko guztiak Euskal Herritik kanpora daude; gaixotasun larri eta sendaezinak dituztenak espetxean daude eta senideek aurrez aurreko bisitetako miaketei uko eginez, bisita asko galdu egin dituzte".



MIREIA BIKUÑA

Mezak esaten hasi dira kaperan, berritze lanak bukatuta

Parrokiako kaperaren berritze lanak bukatu dituzte, eta dagoneko hasi dira elizkizunak egiten. Domekan, Haur Misiolariaren Eguna ospatuz egin zuten lehen ospakizuna. Aurrerantzean, 09:00etako meza kaperan esango dute. Kaperaren margotu egin dute, eta argiteria eta zorua berritu, besteak beste.

beteranuak

EMAITZAK

A TALDEA

Etxaiz-Jai Ari	1-2
Joxely-Nandrolona	0-2
Zorro Bero-Albok	7-1
Txuskos-Txarrixak	0-2

PARTIDUAK

A TALDEA, URTARRILAK 30

13:00	Lozorromo-Bundeswehr/ Mattin
14:30	Gibel Boys-Albok/ Arrilla
18:30	Doolygans-Indar 85/ Txuskos

B TALDEA, URTARRILAK 31

13:00	Zorro Bero-Gaur Bai/ Moli
-------	---------------------------

> Atsedena: Sasquatch

> Arduraduna: Txuskos

SAILKAPENA

A TALDEA

	P	J
1. Zorro Bero	15	5
2. Doolygans	12	5
3. The Gibel Boys	8	4
4. Indar 85	7	5
5. Gaur Bai	6	4
6. Sasquatch	4	4
7. Lozorromo	2	4
8. Bundeswehr	1	4
9. Albok	1	4

B TALDEA

	P	J
1. Txarrixak	12	5
2. Xaguxar	11	6
3. Joxely	8	6
4. Txuskos	8	5
5. Nandrolona	7	4
6. Kalaiñatasaray	6	4
7. Ankartero	4	4
8. Jai Ari	3	5
9. Etxaiz	2	5

www.elkarhezi.com

IZATEZ eta JAKITEZ

Oñatiko ELKAR HEZI IKASTETXEA

0-18 matrikula epea zabalik

telefonoak:
Haur eta Lehen Hezk. 943780511
Bigarren Hezk. 943782870

idazkaritza@elkarhezi.com

OTSAILAK 1-12

zuretzako berri ona

HIRIGINTZA > LANAK

Mitarte kalea zamalanak egiteko da

Oinezkoek dute lehentasuna eta ibilgailuak bakarrik zamaketa lanetarako sartuko dira

Durana kalean bi minutuko egonaldia egiten utziko diete autoei, zeregin laburren baterako

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Mitarte kaleko saneamendu lanak uste baino luzeago joan dira. Kalea abenduan zabaltzeko asmoa zuten, baina hilabete atzeratu da. Eta oraindik azken kontuak egin barik dituzte; zuhaitzak landatu, esaterako. Kalea egunotan zabaldu dute, eta aldaketa garrantzitsu bat eginda: zamalanak egiteko bakarrik izango da.

DURANAN, BI MINUTU BAKARRIK

Zamalan horien ordutegia hainbat seinaleetan zehaztu dute: astelehenetik egubakoitzera, 08:00-

13:00 eta 15:00-18:00; eta zapatuetan, 08:00-12:00.

Bestalde, Basabe bidearen norabidea dagoenetan utziko dute, eta zamalanak egiteko ordutegian Ilargi plazarrantz joan ahal izango dira autoak, Durana kale hasierako piboteak kenduta egongo direlako. Durana kaleak ez du izango aldaketa nabarmenik, baina gidariak kontuan hartu behar dute ezingo dela aparkatu; bi minutuko egonaldia bakarrik egin ahal izango dute; udal ordezkarien esanetan, "egunkaria erosteko beste denbora".



Zamalanen berri ematen duen seinalea Mitarte kalean.

M.A.

Iparraldeko sarrera, hiru hilabetez itxita

Itxita dago Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepidea joan den egubakoitzeko eta Aldundiko Errepide Saileko ordezkariek jakinarazi dute gutxienez hiru hilabete egongo dela itxita. Horren ondorioz sor daitezkeen arazoak konpontze aldera, Santa Kurtz kalean Expres taberna aurrean dauden aparkalekuak kendu egingo dituzte. Hala ere, herriko sarreraren dauden hainbat lantegitara doazen kamioi handiak ezin izango dira pasatu Santa Kurtz kaletik. Aldundiak esan du pisu handiko kamioi horiendako zabaldu egingo dutela itxita dagoen errepidea, aurrez eskaera eginda.

OSASUNA

Odol emaileak behar dituzte

Bi egunean 87 lagunek eman dute; astelehenean berriro jasoko dute

M.A. > ARETXABALETAKO

Arabako Odol Bankuko ordezkariek gurean izan dira bi egunean odola jasotzen, eta hirugarren eta azken eguna astelehenean da, otsailak 1, osasun etxean (16:15-20:00).

Lehen bi egunetako emaitzak ez dira txarrak izan: hilaren 21ean 58 lagun joan ziren, horietatik hiru lehenengo aldiz; eta hilaren 25ean, 29 lagun. Aretxabaletako odol emaileen ordezkariek Ramon Erañak herritar gehiago animatu gura ditu astelehenean odola eman dezaten: "Urteko sasoirik txarrena da negua odola jasotzeko: eguraldi txarra, gripeak... Baina emaileen beharra ez da txikitzen; hortaz, anima daitezela esango nieke sekula eman ez duten horiei ere".



2010-2011 ikasturtea

Izena ematea: **otsailaren 1etik 12ra arte**

Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara



TALDE EGOKITIAK

- 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokietan

ORDUTEGI ZABALA

- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

LOGELA



Txiki txikitatik jolasten heziz

BELORRIETA 8an GAUDE. Tel.: 943 77 03 77

UDALA > 'ARRATABE' ALDIZKARIA

Berritu egin dute udal aldizkaria herritarrei lekua eskaintzeko

'Herritarrak galdezka' tartean herritarrek egindako galderak erantzungo dituzte udal ordezkariak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Atzo banatu zuten etxe *Arratabe* udal aldizkariaren urteko lehen zenbakia, eta berrituta etorri da. Herritarrei lekua egite aldera, *Herritarrak galdezka* tartea sartu dute.

HIRU GALDERA

Asteon, Arteman komunikazio enpresako kide Gorka Etxabek eta Inaxio Garro alkateak jakinarazi dute aldaketok batez ere aldizkariaren edukari eragin diotela. Hala, *Hamaika zeresan* atala kendu egin dute eta horren ordez *Herritarrak galdezka* sartu; baita leku handiagoa egin ere albisteei.

Tarte berriak hiru galderaren erantzunendako tokia izango du eta galderok herritarrek egingo dizkiote Udalarai, udal eraikinetan eskura jarriko dituzten txar-



Gorka Etxabe (Arteman) eta Inaxio Garro, berritutako aldizkaria aurkezten. M.A.

tel bidez –udaletxea, Arkupe, Zainduz eta euskaltegia– edo Udalaren webgunea erabilia. Galdera egileek identifikatu egin behar dute, baina aldizkarian agertu gura ez badute, anonimotasuna errespetatuko diete. Lehentasuna izango dute gaurkotasuna

duten gaiak, eta Udalarekin zerkusia dutenak bakarrik erantzungo dituzte; hau da, Jaurlaritzaren eta Aldundiaren eskumenekorik ez. Eta Garrok jakinarazi zuen galdera egindako hizkuntzan erantzungo dutela Udal ordezkariak.

INDUSTRIA > COPRECI

Aparkalekuko eraikinaren prozesua aurrera doa, EB-Berdeak aurka azaldu arren

M.A. > ARETXABALETA

Astehenean egindako ohiko osoko bilkuran behin-behineko onarpena eman zioten Hiri Antolaketako Arauen Elementuen Aldaketa Puntualari, Copreci lantegiak beste eraikin bat egin dezan orain aparkalekua dagoen tokian. Aralar, EAJ, PSE-EE eta EAren aldeko botoak jaso zituen, nahiz eta EAK hainbat zalantza izan. Ezker Batua-Berdeak alderdiak, ostera, aurka bozkatu zuen.

INDUSTRIARAKO LURRA

Eusko Alkartasunaren ustez, "epe motzerako neurri erreaktiboa" da Copreciren eta Udal Gobernuaren artean adostutakoa. Eta alde bozkatu izana azaldu gura izan dute: "Onartu egin dugu, betiere Copreci enpresaren garapenaren mesedetan. Hala ere, dagokion ingurumen inpaktuaren azterlana egin behar du eta zaratak eta gas isurpenak zaindu. Horien mugak zehaztuta utzi behar dira".

Ezker Batua-Berdeak alderdiko Tomas Fernandezek, ostera, ezetz bozkatu zuen. Haren esanetan, lehentasuna Copreci

Aretxabaletan geratzea da, baina beste aukera batzuk ez direla behar beste aztertu uste du: "Industriak herri barrutik ateratzen dabilta, eta guk beste eraikin bat egiten utziko dugu; ez da naturala hori". Eta Aretxabaletak baduela industriarako lurra dio: "Zubikoa, esaterako. Bertara eroatea garestia dela? Coprecik gastuaren erdia har zezakeela uste dut –orain egin behar duen gastua– eta bestea finantzatzeko SPRIrekin bilera gehiago egin behar zitzuten. Jaurlaritzak ere zati bat jar zezakeen eta Udalak beste bat", dio; eta gaineratu du: "Inguruko bizilagunekin haserre bukatzeko izango da".

ESANAK

"Industriak herri barrutik ateratzen dabilta, eta guk beste eraikin bat egiten utziko dugu; hori ez da naturala"

Tomas Fernandez > EB-Berdeak

MATRIKULAZIORAKO INFORMAZIO BILERAK

2-12 urte bitartekoentzat

Urtarrilaren 27an, euskeraz 18:00etan
eta gaztelaniaz 19:00etan.



KURTZEBARRI

- Ikasten ikasteko,
- Egiten ikasteko,
- Elkarrekin bizitzen ikasteko,
- Norbera izaten ikasteko,

12-16 urte bitartekoentzat

Otsailaren 2an 18:00etan.



Telefonoa: 943 79 00 49 / Faxa: 943 79 38 06
e-maila: kurtzebarrieskola@euskalnet.net

**Egutegi eta ordutegi zabala (uztaila...)
Goizeko eta arratsaldeko zaintzak.**



debagoienerako euskal
eskola publikoa

Zatoz Gurera!

... Euskara eta Euskal kulturaren
jabekuntza eta bizipena bide,
Mundura begira.

Telefonoa / Faxa: 943 79 57 40
e-maila: 012945aa@hezkuntza.net



Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

UDALA > DIRULAGUNTZAK

E Planarekin aurten egin beharreko proiektuak onartu ditu udalbatzak

Santa Ana antzokiko lehen faserako 400.000 euro bideratzea da asmoa eta Luis Ezeiza eta Gaztañaduiko argiteria aldatzeko, 40.000

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Eguazten iluntzean egindako osoko bilkuran, udalbatzak, besteak beste, Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondoekin finantzatzeko proiektuak onartu zituen. Aurten, udalbatzak 440.105 euro jasoko ditu eta diru kopuru hori zinema zaharra zegoen eraikina askotariko erabilera izango duen aretoa egiteko eta Luis Ezeiza herri eskola inguruan eta Gaztañadui kaleko argiteria publikoa aldatzeko erabili nahi dute udal ordezkariak. Asmoa da Santa Ana antzokia egiten

hasteko 400.000 eta argiteria aldatzeko 40.000 euro bideratzea.

Proposamenak, dena dela, ez zuen guztion babesik lortu. Udal Gobernuako kideek (Elizateetako zinegotzia ez zen bilkuran egon), PSE-EEK eta EAK alde bozkatu zuten; EAJ, H1! eta EB-Berdeak taldeetako ordezkariak, berriz, abstenitu egin ziren. Santa Ana antzokia baino gehiago, udalbatzak gaur egun beste hainbat "lehentasun" dituela arrazoitu zuten abstentzioaren alde bozkatu zutenek. Horren harira, EB-Berdeak taldeko Juan Luis Merinok



Kultura zinegotzi Edorta Barandiaran, Santa Anako proiektuarekin.

MIRIAN BITERI

aipatu zuen Ibarraundin, kultura etxean eta unibertsitatean aretoak daudela, eta, besteak beste, aparkalekuen edo pertsona nagusiendako egoitzaren arazoak ere hor daudela gogorarazi zuen.

ASPALDIKO ESKAERA

Pedro Lasagabaster alkateak nabarmendu zuen antzokia aspaldiko eskaera dela eta Merinok aipatutako hiru areto horiekin alderatuta ez duela zerikusirik. Horren harira, adierazi zuen herriko elkarteak eta ikastetxeak "oso pozik" daudela horrekin. Kultura zinegotzi Edorta Barandiaran bat etorri zen alkatearen hitzekin eta gaineratu zuen egunotan elkarteekin elkar-tzen ari dela, esandako proiektua aurkezteko. Atzo, esaterako, musika eskolakoekin zuen hitzordua eginda.

PSEko Iñaki Pierruguesek ere hitza hartu zuen; proiektuaren garrantzia azpimarratu eta Dipu-

tazioarekin hitzarmena lor dezatela eskatu zuen: "Inportantea da lehenengo fasea amaitu bezain pronto, bigarrenarekin hastea eta antzokia ahalik eta azkarren egitea. Horretarako, Diputazioaren laguntza behar dugu".

OTSAILAREN 10EAN

Lasagabasterrek erantzun zion otsailaren 10ean duela Foru Aldundiakoekin batzeko asmoa, gai hori tratatzeko. Jakina denez, erabilera askotariko aretoa bi fasetan egin nahi dute. E Planaren laguntzarekin lehenengoa egingo da; hain justu ere, eraikinaren egitura eta teilatua sendotzea eta anfiteatroa egitea.

ZERGAK

Deskontuen gaineko taula berria, etxez etxe

Kiroldegiko txartel mankomunatuan ere familia ugariendako tarifa bereziak daude

M.B. > ESKORIATZA

Udalak zergen gaineko aurtengo salbuespenak eta deskontuak onartu ditu eta horien berri emateko argitaratu duen taula berria banatuko du egunotan herriko etxe guztietan. 2009koen antzerakoak badira ere, hainbat berrikuntza daude.

Batetik, kiroldegiko txartel mankomunatuan familia ugariendako tarifa bereziak egongo dira; bestetik, ibilgailuaren zerga salbuespena eska dezakete ibilgailuaren jabeak %65etik gorako elbarritasuna duenean; edo %33tik gorako edo %65 baino gutxiagoko elbarritasuna duenean, mugikortasun urriarekin. Bi kasuetan, ibilgailuak 14 ZP baino gutxiagoko potentzia fiskala izango du; azkenik, obra zergetan industria edo merkataritza lokala egokitzeko obra egiteko eta jabea langabezian badago %90eko deskontua aplikatuko da.

EAREN IZENEAN MAIDER OTAMENDIK HARTU DU KARGUA

Eskoriatzako Udalak 11 zinegotzi ditu berriro. Joan den eguazteneko osoko bilkuran, Maider Otamendik hartu zuen kargua. 1999-2003 eta 2003-2007 legegaldietan zinegotzi izan da eta orain arte EA taldeak hutsik zuen eserlekua beteko du. Eguaztenean iragarri zuen lanerako "gogoz" sartu dela Udalera.



Maider Otamendi, eguaztenean. M.B.

INGURUMENA > NATURA

Zuhaitz Eguna egingo dute etzi

M.B. > ESKORIATZA

Azkeneko urteotako ohiturari jarraituz, aurten ere Zuhaitz Eguna egingo dute Eskoriatzan. Etzira, domeka, egin dute hitzordua Ibarraundin, 10:30ean. Museoan landareak hartu ondoren, hala nahi duten herritarrek arbolak landatzera joango dira Aingeru Guarda ingurunera.

Urteroko filosofia jarraituko dute: hain justu ere, joan den urtean jaiotako haur bakoitzeko zuhaitz bat landatu. Bizitza berrien eta zuhaitzen arteko lotura sinbolizatu nahi da horrela. 2009an jaiotako haurrak 41 izan direnez, beste horrenbeste arbola sartuko dira. Antolatzaileek gogorarazi dute edonork parte har dezakeela ekimen horretan eta Udalak materiala jarriko duela.



Joan den urteko Zuhaitz Eguna.

JOSETXO ARANTZABAL

oharrak

KIROLA

> Pilota partidua dago gaur

Euskal Herriko Kluben Ligaren harira, pilota partidua dago gaur, 19:30ean, udal pilotalekuan. Gazteetan, esku bakan, Eskoriatzak Gazteleku izango du parean.

KIROLA

> Areto-futbola bihar kiroldegian

Euskal Ligako areto-futboleko partidua dago. Zapatuan izango da norgehiagoka Intxaurtxuetan, 18:00etan. Etxekoek

Kukuaga Etxebarri taldekoak hartuko dituzte.

GAZTEAK

> Eski irteera eta sukaldaritza tailerra aste bukaeran

Gazteak Valdezcarayra joango dira bihar eskiatzera. Autobusa 07:00etan irtengo da herri-tik eta iluntzean bueltatuko da. Domekan, berriz, sukaldako trikimailuak ikasi izango dituzte gaztelekuan, 17:00etan hasiko den tailerren bidez.

Frutería MARTIN Frutatesía

FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA

San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58

Iñaki Toledo > Espainiako oilagor ehizan txapeliduna

"Oilagor bat botata kontrolera jaistea erabaki nuen, kartutxo bakarria erabili nuelako"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Elurra zela eta, bi aldiz atzeratu zuten Espainiako oilagor ehiza txapelketa. Azkenean, baina, urtarrilaren 16an jokatu zuten txapelketa Errioxako Lumberras herrian. Oilagor bakarria botata, Iñaki Toledo antzuolarra izan zen onena. Rivotxakurraren laguntza izan zuen Toledok Errioxako txapelketan.

Lehenik eta behin, zorionak garaipenagatik! Zelan joan zen txapelketa?

Eskerrik asko! Esan behar da oilagor txapelketa izan dela; hau da, bakarrik oilagorrek bota ahal genituen. Araudi bat dago, eta hori betearazteko epaile bat joaten da ehiztari bakoitzarekin mendira. Araudiaren arabera, ahal beste oilagor botatzeko aukera geneukan, baina hamar kartutxo bakarrik erabilia.

Egiten zuen hotza kontuan hartuta, oilagor gutxi egongo zen!

Bai; Lumberras herria 1.200 metroan dago. Handik gorako ehiza-esparru baten ibili ginen, eta elurtuta zegoen dena. Kontuan izan behar dugu oilagorrek epeltasun bila etortzen direla honantz; hortaz, egiten zuen hotza kontuan hartuta, oilagor gutxi zegoen Lumberrasen.

Oilagor bakarria botata irabazi zenuen txapelketa.

Bai; hiru ordu behar izan nituen oilagor bat topatzeko. Hamar kartutxo geneuzkan, baina bakarria nahikoa izan nuen. Behin oilagorra bota nuenean, nire erabakia izan zen kontrolera jaitsi eta bakarrarekin txapelketa irabazten ahalegintzea.

Lehenengo tiroan bota nuen oilagorra, eta hori kontuan hartu zuten. Berdinketak apurtzeko kontuan hartzen dira nork tiro gutxien egin eta nor lehenengo iritsi kontrolera. Kontrolera iritsi nintzenean beste ehiztari bat zegoen oilagor bat botata, baina hark



Iñaki Toledo, River eta Lis txakurrekin. A.E.

"Maila ona dago, horregatik zailena Euskadiko txapelketan aurrera egitea da"

"Ehiza zaletasuna etxetik datorrit; aita ehiztaria zen eta anaia ehiztari amorratua da"

bi kartutxo erabili zituen. Hortaz, niri irabazteko bi oilagor bota beharra zegoen.

Hiru final jokatu dituzu, eta, azkenean, iritsi da garaipena!

Bai, hiru jokatu ditut eta hirurak prestatu ditut. Euskadin, zailena finalera iristea izaten da; izan ere, hemen zaletasun handia dago eta Euskadiko txapelketan

aurrera egitea izaten da zailena. Lehenengo jokatu nuen txapelketan (2002. urtean) oilagor bakarria bota nuen, eta orduan hartu nuen erabakia izan zen bigarren oilagorren zain geratzea; hala, txapelketan laugarren geratu nintzen. Oraingo honetan, beste modu batera jokatzera erabaki dut.

Txakurren laguntza ezinbestekoa izango da.

Txakur guztiak emeak ditut, eta setter ingelesak. Hiru ditut: River, Troya eta Lis. Oraingoan, River txakurrarekin ibili naiz, baina bere azken urtea izan da.

Noiztik zara ehiza-zale?

Urte asko dira ehiza-zaletasuna daukadala. Etxean aita ehiztaria zen; eta anaia ere ehiztari amorratua da. Ni neu, batez ere, oilagorratan ibiltzen naiz. Txapelketetan parte hartzen azkeneko 25 urteotan nabil.

JENDARTEA > JAIK

Gazte Asanbladak autobusa jarri du Aiherrara joateko

Autobusa otsailaren 6an irtengo da, 17:00etan; izena emateko azken eguna domeka da

A.E. > ANTZUOLA

Udalak egin duen moduan, Gazte Asanbladak ere autobusa jarri du otsailaren 6an Aiherrara joateko. Aiherrako gazteek antolatuta, kontzertuak egongo dira hango gaztetxean, 22:00etan hasita; hala, hitzordu horri begira jarritako autobusa da.

TORRESOROATIK

Aiherrarako autobusa Torresoroatik irtengo da otsailaren 6an, 17:00etan. Handik, ostera, goizaldean irtengo da autobusa Antzuolara. Izena emateko azken eguna domeka izango da, gaztetxean edo Mox tabernan.

OTSAILEKO EGITARUA

Gazte Asanbladak, gainera, otsaileko egitaraua prest dauka dagoeneko.

Otsailaren 12an, egubakoitz, 19:30ean, poteo musikala egingo dute herriko kaleetan, gaztetxetik abiatuta. 21:00etan afaria egingo dute gaztetxean bertan. Izena emateko azken eguna otsailaren 7a izango da. Ondoren, afalostea girotzeko, Gau Argin taldeak erromeria egingo du.

Otsailaren 21ean, gaztetxean bertan, *El señor de las moscas* filma ikusteko aukera egongo da. 17:30ean izango da hitzordua.

> JOKOAK

Gaur jokatuko da mus txapelketako azken kanporaketa eta domekan finala, Arin jatatxean

Gaur, 22:15ean hasita, Antzuolako mus txapelketako laugarren kanporaketa jokatuko da. Gailur tabernan izango da hitzordua. Finala domekan izango da, Arin jatatxean, 16:30ean. Dagoeneko finalerako sailkatu dira: Luis eta Jesus, Andoni eta Patxi, Axen eta Zubi eta Felix eta Claudio.

> ELKARTASUNA

Santa Ageda eskean abesbatzak batutako dirua Anelkarren bitartez Haitira bideratuko dute

Haitiko hondamendia dela-eta, Anelkar dirua batzen hasi da. Bi bide jarri dituzte: Antzuolako Kutxako sukurtsalean eta Euskadiko Kutxan dirua batuko dute; eta otsailaren 4an, abesbatzak antolatuta Santa Ageda eskean batutako dirua ere Haitira bideratuko dute. Herriak Elkarlanean taldearekin egingo dute lan.

> FUTBOLA

Zapatuan 16:00etan jokatuko du Antzuolak sailkapenean atzean dagoen Zestoaren aurka

Joan den zapatuan Lagun Onak taldeari irabazi ostean, oraingo aste bukaeran ere etxean jokatuko du Antzuolak: bihar, zapatua, Zestoa hartuko du Estala futbol zelaian, 16:00etan.

18. jardunaldia izango da. Antzuola sailkapenean 8. postuan dago 22 punturekin; Zestoa, berriz, 13.a da 18 punturekin.

oharrak

HITZALDIA

> **Bularreko minbiziaz jardungo dute Olanen etxean**

Bularreko minbizia garaiz nola detektatu azalduko du Karmele Plazaolak, Onkologikoko medikuak. Kattalin elkarteak antolatuta, 18:00etan izango da hitzaldia Olanen.

DEIALDIA

> **Aiherran abesbatzarekin abes- teko entsegua egingo dute**

Otsailaren 6an, Aiherran Santa eskean abesbatzarekin

abestu gura duenak, entsegua otsailaren 3an izango du, eguaztena, 20:00etan Udaletxean.

KINTADA

> **1974an jaiotakoek kintada egingo dute martxoaren 6an**

Hernaniko Iparragirre sagardotegian izango da bazkaria. Eguerdian irtengo da autobusa Antzuolatik, eta 20:00etan itzuliko dira. Harremanetarako telefonoa 665 73 65 95 da, eta helbide elektronikoa: igama@euskalnet.net.

MUJIKA
HARATEGIA



**Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

UDALA > FORU FONDOA

Zapateroren dirua leihoetarako, barandetarako eta eskolarendako

Itoginak dituen Herri Eskolako fatxada konpontzeko 42.441 euro bideratuko dituzte

Herriko bost gunetan barandak ipintzeko edo berritzeko, berriz, 35.861 euro gorde dituzte

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Estatu Fondoko diruarekin Herri Eskolako fatxada konpondu, herriko barandak berri eta udaletxeko leihoak aldatu nahi dituzte udal arduradunek. Hiri-gintza batzordean asteen adostu duten moduan, hiru proiektu nagusi horietara bideratuko dute bigarren E Planeko dirua.

Aurten Estatu Fondotik Elgetara 113.512 euro etortzea aurreikusten dute udal arduradunek. Dirulaguntza hori ahalik eta modu eraginkorrenean erabiltzen saiatuko direla aurreratu dute. Madrilek urtebeteko epea ematen du lanak egiteko, baina udaletxean lehenbailehen hasi nahi dituzte: "Lanak esleitu bezain pronto", adierazi dute.

LEIHOAK ETA BARANDAK

Udaletxeko leihoak aldatzeko erabakia eraginkortasun energetikoa hobetzeko irizpidea jarraituta hartu dute. Iaz jasotako dirulaguntzarekin, besteak beste, udaletxeko fatxada eta teilatua konpondu ziren. Zaharkituta dauden leihoak aldatuta energia aurreztuko litzateke. Egitasmo horretara bideratutako diru kopurua 35.209 euro da.

Herrian, bestalde, hainbat baranda ipintzeko edo berritzeko beharra ikusi dute udal arduradunek. Berraondokoan, kafe antzokirako bidean, Artekalen eta Domingo Iturbe kalean ipintzea lehentasunezkoztat jo dute. Hala, 35.861 euroko diru saila bideratuko dute horretara.



Herri Eskolako fatxadak itoginak ditu eta konpondu egin nahi dute.

HERRI ESKOLAKO FATXADA

Antzemandako beste premia bat Herri Eskolako fatxada konpontzea izan da. Itoginak ditu eta

horiek konpontzeko zein teila-todi egokia ipintzeko 42.441 euroko partida aurreikusi du udalbatzak.

BATZAR IREKIA

Aixelako zentroari buruzko azalpenak

Otsailaren 3an bilera irekia dago Foru Aldundiko teknikariek

L.Z. > ELGETA

Aixelako harrera etxeaz azalpenak emango ditu Foru Aldundiak otsailaren 3an, eguaztena, 19:00etan. Udalak horrela eskatuta, Foru Aldundiko Haur eta Gazteria Saileko ordezkariak Elgetara etorriko dira herritarrekin batzar irekia egitera.

Oxel Erostarbe alkateak esan du aspaldian zurrumurrurru asko zabaldu direla herrian, eta Udalak nahi duela herritarrek, batez ere Aixelako auzotarrek, zalantzak argitzeko aukera izateaz. "Diputazioarena da zentro horren eskumen osoa eta pentsatzen dugu egokiena gauza horiek guztiak argitzeko Diputazioko teknikariak azalpenak ematera etortzea dela".



Patxi Montero irakaslea eta Ana Gillegi zinegotzia Espaloian.

JULIO CALLEJA

DANTZA > SAIO IREKIA

'Herrixa dantzan' jarriko da domekan

19:00etan elkartuko dira Patxi Monteroren gidaritzapean dantza saio irekia egiteko

L.Z. > ELGETA

Mundu osoko dantzak, tartean euskaldunak, proposatzen dizkigute domekan hasiko den *Herrixa dantza* ekimenean. Dantzan egitea gustuko duten guztiei zuzenduta, ordu eta erdiko saioa egingo dute etzi kafe antzokian, 19:00etan hasita.

ERRAZAK ETA DIBERTIGARRIAK

Antzerako ekimenetan eskarmentua duen Patxi Monterok gidatuko ditu saioak. "Dantza errazak, dibertigarriak eta ludikoak egingo ditugu", esan du. "Jendeak dantzan ondo pasatzea da lehenengo helburua". Gonbita eginda dago.

> INGURUMENA

Erabilitako pilak jasotzeko bost gune daude herrian

Mankomunitateak banatu du etxean erabilitako pilak nora eraman jasotzen duen esku-orria.

Elgetan programara atxikitako bost puntu edo gune daude: Ana liburu-denda, Herri Eskola, Irama, Udala eta Ugari. Mota guztiak pilak jasotzeaz gain -alkalinoak zein botoi-pilak-, batera txikiak ere hartzen dituzte -poltsikoko telefonoenak eta kamerarenak-.

Herritarrei erantzukizunez jokatzeke eskatzen zaie.

oharrak

BATZARRA

> **Intxortako Lehoiak taldekoek batzarra deitu dute zapaturako**

Athletic taldearen Elgetako lagunarteak, Intxortako Lehoiak taldeak, urteko batzarra egingo du bihar, zapatua. Bolatoki tabernan elkartuko dira, 17:00etan. Besteak beste, urteko balantze ekonomikoa eta 2010eko kuota izango dituzte hizpide. Zuzendaritzak batzarraren parte hartzeke dei berezia egiten die taldeko bazkide diren guztiei.

OZKARBI ELKARTEA

> **Iban Arantzabal presidente eta Ane Arantzabal presidenteorde**

Ozkarbi elkarteke bazkideek hilaren 21ean egin zuten urteko batzar orokorra. Bertan, besteak beste, balantze ekonomikoaren aurkezpena eta zuzendaritza batzordearen aldaketa egin zituzten. Presidentea eta presidenteordea ere hautatu zituzten: 2010ean Iban Arantzabal izango da presidente eta Ane Arantzabal, berriz, presidenteorde.

frontenis txapelketa

Beste sei norgehiagoka jokatuko dituzte

Azken orduko ezusterikezean, zapatu arratsaldean (16:30) eta domeka goizean (10:30) jokatuko dira aste bukaera honetan frontenis txapelketako partiduak.

Elgetako 24 lagun ikusiko ditugu kantxan lanean nor bere onena ematen.

AZKEN EMAITZAK

1. Asier Osoro-Adrian Gorostiza/Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi	18-25
2. Sergio Bouzas-Mikel Arkarazo/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna	24-25
3. Xabier Ubera-Iban Retolaza/Mikel Mandaluniz-Julen Barrutia	25-12
4. Asier Untzetabarrenetxea-Asier Morales/Eneko Maguregi-Andoni Elortza	25-16
5. Hodei ZEnitagoia-Mikel Beretxinaga/Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren	25-15

ZAPATUKO PARTIDUAK, 16:30EAN

1. Nagore Ojanguren-Izaskun Ojanguren/Nagore Morales - Beatriz Zabala
2. Asier Morales-Asier Untzetabarrenetxea/Iban Retolaza-Xabier Ubera

DOMEKAKO PARTIDUAK, 10:30EAN

1. Adrian Gorostiza-Asier Osoro/Sergio Bouzas-Mikel Arkarazo
2. Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren/Mikel Mandaluniz-Julen Barrutia
3. Asier Morales-Asier Untzetabarrenetxea/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna
4. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Eneko Maguregi-Andoni Elortza

ARAMAIO > GIZARTE ZERBITZUAK

Nagusiendako eguneko zentroa errealitate izango da laster

Euren kabuz moldatzeko gai diren bederatzi pertsona hartuko ditu eguneko zentro berriak

Proiektua lehiaketara atera dute eta Udalaren asmoa da lanak ahal bezain laster hastea

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Proiektua asko atzeratu den arren, badirudi, azkenean ere, Aramaiok eguneko zentroa izango duela, eta laster, gainera. Eguaztenean, Udalak eta Arabako Foru Aldundiak akordioa sinatu zuten eguneko zentroa finantzatzeko; Covadonga Solaguren Gizarte Politikarako foru diputatuak eta Asier Agirre alkateak sinatu zuten hitzarmena eta bertan zehazten da Arabako Foru Aldundiak aurrekontuaren %80 ordainduko duela eta Udalak %20; eguneko zentroaren aurrekontua 160.000 euro inguru da.

Bi aldeak ere pozik azaldu ziren: "Lurraldean arteko oreka lortzea da gure helburu nagusia; hau da, gizarte zerbitzu berdinar



Gizarte Politikarako foru diputatua eta Aramaioko alkatea. Beste argazkian, zentroa egingo duten lekua.

AINARA INUNZIAGA.

eskaintzea herri handietan eta txikietan. Eguneko zentro hau gure apustu horren beste adibide bat da", azaldu zuen Solaguren.

Asier Agirre alkatea ere gustura bai, baina hitzarmena eurek nahi baino gehiago atzeratu dela esan zuen: "Proiektu hau asko atzeratu da. Aramaioko Udalak legegaldien hasieratik partida bat gorde zuen eguneko zentroa egin ahal izateko, baina Diputa-

zioaren dirulaguntza atzeratu egin da, izan dituzten arazo ekonomikoengatik". Esan bezala, baina, gustura zegoen eguneko zentroarekin, herrian zegoen hutsune handi bat beteko delako: "Orain arte, Aramaioko adineko pertsonen Arrasatera joan behar zuten eta orain, herrian bertan jasoko dute zerbitzu hori".

Eguneko zentroa Lurgorri pasealekuan kokatuko da, Udalaren lokal batean. 130 metro koa-

dro inguru izango ditu eta euren kabuz moldatzeko gai diren adineko pertsonendako edo menpekotasun maila txikia dutenendako izango da. Bederatzi pertsona hartuko ditu eta 09:00etatik 18:00etara egongo da zabalik.

Udalak aurreikusten du lanak ahal bezain laster hastea. Proiektua landuta dago dagoeneko, eta eguaztenean egindako osoko bilkuran onartu eta lehiaketara atera zuten.

ARAMAIO

Unzuetan ere kupelak sagardo beteta daude

Lanpetuta ibiliko dira datozen hilabetetan, baina guztia prest dute denboraldirako

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aramaioko Unzuetan sagardotegian ere hasi dute sagardo denboraldia. Urte guztian izaten dituzte kupelak zabalik, baina, zalantza barik, datozen hilabeteak izango dira lanpetuenak. Unzuetako Valeriano Ibabek azaldu digu dagoeneko erreserba asko dituztela datozen aste bukaretarako: "Zapatutako eta domekarako erreserba askotxo ditugu, batez ere bazkaltzeko. Datozen asteotan oso lanpetuta ibiliko gara".

Unzuetan sagardotegian Zapiain sagardotegitik ekartzen dute ardoa, eta aurtengoa oso kalitate onekoa dela esan digu Ibabek. Bi kupel dituzte eta horietan 300 litro sagardo inguru sartzen dira. "Kupelak hustu ahala joaten gara betetzen, beti sagardo freskoa izateko", dio. Baina sagardoa ez da guztia: jatekoa ere garrantzitsua da eta Unzuetan menu ederra eskaintzen dute: txori-zoa, bakailao tortilla, bakailaoa piper berdeekin, txuleta eta gazta etxean egindako menbrilloarekin.

LEINTZ GATZAGA > AISIALDIA

Urteko egitaraua zehaztu du Gurelek

Ekitaldi berrien artean daude mendi irteerak eta beste herri batzuekin hartu-emanak sendotzea

Ludotekako begiraleei esker, egubakoitzean hasiko dira ospatzen aurten Inauteriak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Astelehenean egindako batzarrean zehaztu zuen urteko egitaraua Gurel guraso elkarteko zuzendaritza batzorde berriak. Aurreko urteetan egindako ekitaldiak mantentzea da asmoa, eta, era berean, berriak egingo dituztela iragarri dute.

Hilabetean behin ekitaldi bereziren bat egin gura dute, eta otsailari Inauteriak dagozkie. Aurten, baina, egubakoitzean hasiko dira ospatzen, egun handia zapatua izan arren: "Ludote-

kako begiraleen burutazioa izan da egubakoitzean mozorrotzea, eta ume guztiak punk jantziko dira", jakinarazi du Dorleta Elkorobarrutia kideak. Eta ilunkaran antzerkia izango dute ludotekako kideek eta gainerako herritarrek kultura etxean. Inauterizapatua, ostera, merienda egin ez hasiko dute eta ondoren jolasak egingo dituzte, urtero legez, pilotalekuan: "Ume eta gazte, guraso eta adinekoendako izango dira antolatutako jolasak", esan digu Elkorobarrutiak.



Gureleko kideak eta umeak jolasean Inauterietan.

M.A.

BIZIKLETA ETA MENDI IRTEERAK

Aurrera begira ere ekitaldi asko dituzte buruan: martxoan, Zuhaitzaren Eguna ospatu gura dute Udalarekin batera; apirilean, egun-pasa joango dira bizikleta irteera eginda; maiatzean, Atxorrotz egunean parte hartu gura dute; ekainean, antzeko ezauga-

rriak dituen beste herri bateko guraso elkartearekin elkartruketa egitea da asmoa; uztailean, udalekuak antolatzea; eta udazkenean, euskal dantzak eta panderoa jotzen ikasi gura dute. "Eskura ditugun baliabideak aprobetxatuta antolatuko ditugu ekitaldi guztiak", dio Gureleko kideak.

KZGUNEAN

Interneten gaineko ikastaroak daude gaur

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Gaur, hilak 29, arratsaldean (16:00-20:00) izango da Aitor Madrid begirale eta Internet kontuetan aditua Pilar kaleko KZgunean. Hainbat ikastaro eskainiko dizkie herritarrei, bi ordukoak guztiak eta oso samur ikastekoak: wifi sarea zer den, Gmail programa zelan erabili posta jositzeko, Google-ek eskaintzen dituen tresnak ezagutu... eta gazteen artean asko erabiltzen dituzten sare sozialen gaineko argibideak emango dizkie interesatuei: Facebook, Twitter...

Gainera, herritarrek dituzten zalantzak eta kezak argitzeko gertu izango da Aitor Madrid.

> MENDIA

Datozen hiru urteotan Ternua etxeak babestuko du Euskal Mendizale Federazioa

Atzo eguerdian hitzarmena sinatu zuten Arrasateko enpresa Ternuak eta Euskal Mendizale Federazioak. Akordio horren bidez, datozen hiru urteetan Ternua EMFren babesle ofiziala eta bere irudi publikoa izango da.

Hitzarmena sinatu zuten EMFko presidente Txomin Uriartek eta Ternuako komertzial saileko arduradun Michel Gogniatek. Alde biak pozik azaldu ziren hitzarmenarekin. Datozen hiru urteotan EMFk Ternua marka eta bere produktuak sustatu beharko ditu. Ternuak, bestalde, materiala emango die eskalada selekzioari, mendi-lasterketa eta mendi-eskiko taldeei.



Txomin Uriarte eta Michel Gogniat, atzo, Import Arrasaten.

JULEN IRIONDO

> ZIKLISMOA

Velascok 18. postuan amaitu du Tour Down Under proba, erregulartasun handia erakutsita

"Amaitu da denboraldiko lehenengo itzulia, oso azkar joan gara Australian, eta pena da Willungako etapan ez nuelako neure burua probatzeko aukerarik izan. Iritsi gara etxera, negu gogorrera". Velascok *Twitter* bidez talde laranjaren jarraitzaileei idatzitako lerroak dira, eta Arrasatekoa pozik azaldu da, lan ona egin dutelako. Abiadura-lasterkariak dominatu duten proban Arrasatekoa aurrealdean ibili da etapa askotan, eta erregulartasun horri esker lortu du sailkapen orokorrean 18. postua.

Velascok, baina, ez du atsedean hartzeko astirik izan, Euskalteko zuzendarien aginduz taldea kontzentratuta dagoelako entrenamendu saio onak egiteko asmoz.

> ERRUGBIA

Arrasateko neskek Eibarren kontra jokatu dute zapatuan eta gizonetako Anoetara joango dira

Astebeteko atsedendialdiaren ondoren Kanpanzar ART taldeko mutilek etxetik kanpora jokatu dute, Bera Bera taldearen kontra, Anoetan (zapatua, 16:00).

Emakumezkoen Arrasate/Durango taldeak, berriz, etxean jokatu du, Mojategin (zapatua, 16:00etan). Arrasatearrez eta durangarrez osatutako taldeak Eibarko neskek izango ditu aurrean. Eta etxetik kanpora jokatu dute Arrasateko gazteek eta baita kadeteek ere. Neskekin gertatzen den moduan, bi kategoria horietako gazteek Durangokoekin batera osatzen dute taldea eta biek izango dute kontrario bera: Bilboko unibertsitatea. Bihar, zapatua, 16:00etan jokatu dute gazteek eta 19:00etan kadeteek.

> FUTBOLA

Aretxabaletak domekan ahaztu nahi du Realak lehenengo itzulian emandako errepasoa

Aretxabaletak sailkapenean bigarren postuan dagoen Realaren bisita izango du domekan Ibarren (16:30), eta Gordobilen eta Arenazatzen mutilei oraindik ez zaie ahaztu lehenengo itzulian orduko liderrak emandako egurra (6-0). Bosgarren jardunaldia zen, eta ordurako aretxabaletarrek zazpi puntu zituzten. Baina Zubietan gertatutakoaren errebantxa hartu nahiko dute aretxabaletarrek, gauzak orduan baino hobeto egin, eta etekinen bat lortu.

Ohorezko erregionalean Mondrak etxean jokatu du bihar, azken postuan dagoen Real Unionen kontra (16:30). Aloña Mendik eta Bergarak kanpoan jokatu dute: Aloña Mendik dabilen Idiazabalen kontra (zapatua, 16:00) eta Bergarak bigarren dagoen Zarautzen zelaian (zapatua, 15:45).

FUTBOLA > REALA

Astelehena ezkerro Realak bat du: Bergarako Real-zaleak

Eguaztenean egin zuten taldearen lehenengo batzar informatiboa

Taldearen aurkezpen ofiziala falta da, eta Realak adieraziko die noiz egingo duten

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergaran lehenengo mailako beste futbol talde batzuen lagunartek egonda, Realak berea behar zuen. Hutsune hori ikusita, Xabi Etxaniz orain dela hilabete asko hasi zen batera eta bestera, Bergaran Realeko lagunarte bat sortzeko jendea animatzen. Eta Luis Mari Gallastegi-lagunarteko presidente izango dena- izan zen lehena apuntatzen.

Ordutik hona, hainbat batzar egin dituzte, eta nahi beste agiri bete; izan ere, lagunarte ofizial bat sortzea ez da goizetik gauera egingo: "Lagunartearen izenarekin ere hainbat traba izan genituen, bizpahiru proposamen bota zizkiguten atzera, eta azkenean Bergarako Real-zaleak taldea izango gara", adierazi dute lagunartekoek. Hala, astelehenetik ofizial den lagunartek dagoeneko 120 kide ditu, adin guztietakoak.

ZUZENTZARITZAN ZORTZI KIDE

Eguazteneko aurkezpenean zuzendaritzako kideak aurkeztu zituzten. Aurreratu moduan, Luis Mari Gallastegi izango da



Bergarako Real-zaleak taldeko kideetako batzuk, eguaztenean, lagunartek egin duen lehenengo

presidentea, Pedro Vicente presidenteordea, Manuel Ena diruzaina, Karlos Zangitu idazkaria eta eurekin batera batzordekideak izango dira Xabi Etxaniz, Luis Ruiz de Egin, Gonzalo Arrondo eta Iñaki Irazola.

Batzarrean garbi asko azaldu zuten zortzi kidek osatu behar zutela zuzendaritza, Realak hala-

xe eskatzen duelako, baina norbaitek zuzendaritza egon nahi bazuen azkar asko egingo diotela lekua.

AURKEZPENAREN ZAIN

Realeko lagunarte mahoneroa ofiziala da dagoeneko, baina oraindik aurkezpena falta da: "Guk aurkezpena lehenbailehen

SOKATIRA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Euskadiko sokatira finalak, bihar

Gizonezkoen eta emakumezkoen finalak jokatu dituzte bihar, zapatua, Aramaioko pilotalekuan, 17:00etan

X.U. > ARAMAIO

Gizonezkoen lehia 600 kilo barruan egingo dute eta emakumezkoena 540 kilo barruan.

Gizonezkoetan ondorengo taldeak izango dira zein baino zein gehiago tiraka: Berriozar (Nafarroa), Sokarri (Bizkaia), Abadiño A (Bizkaia), Abadiño B (Bizkaia), Barrundia (Araba), Amaiur (Nafarroa) eta Napurrak (Iparralde).

EMAKUMEZKOTAN LAU TALDE

Emakumezkoen finalak 540 kilo barruan jokatu dituzte eta lau talde izango dira lehian: Beti Gazte (Nafarroa), Badaiotz (Araba), Sakana (Nafarroa) eta Ibarra (Gipuzkoa).

Urtarrilaren 16an lehen jardunaldia jokatu zuten Abadiñon. Orduan lau talde aritu ziren lanean: Gasteizko Badaiotz, Sakana, Beti Gazte eta Ibarra. Bakoitzak zortzi tiralariz osatutako talde bikaina plazaratu zuen. Eta berriki amaitu den Euskal Herriko Lauko Txapelketako txapeldua, Gasteizko Badaiotz, izan zen jaun eta jabe. Hain zuzen ere, talde hori da Aramaioko finalerako faborito. Gizonezkoetan, berriz, parean daude indarrak.



Berriozarko gizonezkoen sokatira taldea.

Realak beste lagunarte aleak taldea



go batzar informatiboan.

XABIER URTZELAI

Arrasatek Real Salamanca ikusteko bidaia antolatu dute

Arrasate Txuri-urdin, Gontxa Taldie eta Bonba Taldie lagunartek bidaia antolatu dute martxoaren 13ko eta 14ko astebururako, Salamancara. Oraindik ez dakite Realak norgehiagoka zapatuan edo domekan jokatu duen, baina autobusa zapatu goizean irtengo da. Norghegiagoka zapatuan baldin bada, zuzen joango egin eta gero domekan Burgosen bazkalduko dute. Partidua domekan bada, zapatua Salamanca bisitatzeko aprobetxatuko dute. Arrasateko lagunartekoei deialdi irekia egin dute; hau da, ez dago zertan lagunarteko kide izan, helburua autobusa betetzea da-eta. Bidaiaren prezioa 92 euro da, eta prezio horren barruan daude autobusa, partidurako sarrera eta gau bat hotelean igarotzea. Bidaiaren gaineko informazio gehiago edota izenematea Basati eta Monte tabernetan egin ahal da.

promiso bakarra taldea bera animatzea dela. Realak, berriz, kanpoko partiduetara joateko autobusa ordaintzeko 135 euroko dirulaguntza emango die, eta urtean behin, lagunarteko bazkide guztiak Anoetara sartu ahal izango dira, doan. Hain zuzen ere, eguaztenean hasi ziren partidu hori zein izan daitekeen erabakitzen, Albaceteren kontrakoa, Celtarena...

GAZTEEK 15 EURO, NAGUSIEK 30
Lagunarteko kide izateko gazteek -15 urtetik beharagoek- 15 euro ordaindu beharko dituzte eta nagusiek 30 euro. Horrekin batera, lagunartearen egoitza Agorrosingo taberna izango da, eta Real-zaleen asmoa da Anoetara joaten ez direnak bertan elkartzeko partidua ikusteko.

BIDAIA

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Real-Las Palmas
Zapatua. 18:00. Anoeta.

Hirugarren maila
Aretxabaleta-Reala
Domeka. 16:30. Ibarra.

Gazteak liga nazionala
Aurrera Vitoria-Aretxabale
Domeka. 11:45. Gasteiz.

Kadeteen euskal liga
Bergara-San Martin
Domeka. 16:00. Agorrosin.

Ohorezko erregionala
Idiazabal-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Idiazabal.

Zarautz-Bergara
Zapatua. 15:45. Zarautz.
Mondra-Real Union
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Erregional preferentea
Antzuola-Zestoa
Zapatua. 16:00. Estala.
Aretxabaleta B-Mutriku
Zapatua. 17:45. Ibarra.

Lehen erregionala, igoera
Bergara-Kostkas Miren
Zapatua. 17:30. Ipintza.
Hernani-Mondra
Zapatua. 18:30. Zubipe.

Lehen erregionala, kopa
UDA Arizmendi-Urki
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Ohorezko gazteak, kopa eta jaitsiera
Aloña Mendi-Mondra
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

Gazteak, igoera fasea
Sanse-Aretx.B Arizmendi
Zapatua. 12:00. Donostia.

Gazteak, kopa
Eibartarrak-Bergara
Zapatua. 19:00. Unbe.
Arizmendi-Ikasberri
Zapatua. 15:30. Almen.

Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea
Antiguoko-Aretx. Arizmendi
Zapatua. 10:30. Berio.
Bergara-Beasain
Domeka. 11:45. Ipintza.

Ohorezko mailako kadeteak, kopa eta jaits.
Billabona-Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Arratzain.

Kadeteak, igoera fasea
Aloña Mendi-Oiartzun
Domeka. 11:30. Azkoagain.
Arrasate-Euskalduna
Domeka. 12:00. Mojategi.

Kadeteak, kopa
Bergara-Arizmendi
Domeka. 10:00. Ipintza.

Ohorezko mailako infantilak, txapeldunen f.
Aretx. Arizmendi-Eibar
Domeka. 11:00. Ibarra.
Real Union-Arrasate
Domeka. 11:15. Irun.

Infantilen ohorezko kopa
Zumaiko-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Zumaia.

Bergara-Ilintxa
Zapatua. 15:30. Ipintza.

Infantil, parte hartzea
Mutriku-Leintz Eskola Kirola
Zapatua. 11:30. Mutriku.

Infantil, txapeldunen fasea
Arrasate-Antiguoko
Zapatua. 12:00. Mojategi.

Infantil txikien kopa
Aretxabaleta B-Zarautz
Zapatua. 11:00. Ibarra
Ordizia-Bergara
Zapatua. 12:00. Altamira.

Infantil txiki, parte hartze
Aloña Mendi-Urnieta
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

Emakumezkoak, igoera
Arizmendi-Allerru
Zapatua. 11:30. Almen
Mondra-Lagun Onak
Zapatua. 18:30. Mojategi.

Emakumezkoen kopa
Amaikak Bat-Bergara
Domeka. 16:30. Deba.

Emak. F11 kadete, txapeld.
Real Union-Arizmendi
Domeka. 12:45. Irun.

Emak. F8 kadete, txapeld.
Bergara-Ordizia
Domeka. 18:00. Ipintza.

Emak. F8 Kadete, kopa
Aloña Mendi-Zestoa
Domeka. 10:00. Azkoagain.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa
Eskoriatza-Kukuaga
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

Gipuzkoako bigarren mail.
UDA Orly-Denak taberna
Zapatua. 16:30. Almen.

SASKIBALOA

Lehenengo maila
MU-Lagunak
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Gipuzkoako seniorrak
Aloña Mendi-Ibaizabal
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Gip. senior gizonezkoak
Alde zaharra-Soraluce BKE
Zapatua. 20:00. Donostia.

Gip. senior emakumezko.
Alde zaharra-Eskoriatza
Domeka. 12:00. Donostia.

Gazte gizonezkoak, partai.
Internacional-Soraluce BKE
Zapatua. 12:15. Donostia.
STL Lizardi-Aloña Mendi
Zapatua. 12:15. Donostia.

Gazte emakumez. Errend.
Zarautz-Eskoriatza
Domeka. 16:00. Zarautz.

Kadete giz. Errendimend.
Interna.-Mondragon Unib. A
Domeka. 09:00. Donostia.

Kadete emak. Partaidetza
Aloña Mendi-Hierros Mav
Zapatua. 11:45. Zubikoa.
Arizmendi Esko.-Andraitz
Zapatua. 10:00. Intxaurtxu.

Colchones Ats.-Soraluce BKE
Zapatua. 10:00. Ordizia.

Andaritz-Eskoriatza
Zapatua. 11:00. Legazpia.
Soraluce BKE-Hierros Mavi
Domeka. 12:15. Bergara.

Infantil emakumezkoak
Soraluce BKE-Antigua Lube.
Zapatua. 12:00. Bergara.
LEK Eskoriatza-Gamon Caf.
Zapatua. 12:00. Musakola.

ESKUBALOA

Euskadiko Txapelketa
Ford Mugarri-Barakaldo
Domeka. 11:00. Iturripe.

Euskadiko senior emaku.
Verkol Aloña-Elgoibar
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

Euskadiko gazte emakum.
Verkol Aloña-Usurbil
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Euskadiko kadete emaku.
Verkol Aloña-Usurbil
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Lehenengo territoriala
Amenabar-Soraluce BKE
Domeka. 12:30. Zarautz.

Irungo gazt.-Izarraitz Aloña
Domeka. 11:45. Irun.

Bigarren territoriala
Usurbil-Arrasate
Domeka. 11:15. Usurbil.
Leizaran-Arrasate
Zapatua. 16:00. Andoain.

XAKEA

Euskadiko txapelketa
Arlutz-Naturgas Sestao

Gipuzkoako preferentea
Hondarribia-Arrasate A

Gipuzkoako lehen maila
Gros D-Arrasate San And. B

Gipuzkoako bigarrena
Idiazabal-Arrasate C
Gros F-Bergara-zaleak

ERRUGBIA

Euskadiko txapelketa
Bera Bera-Kanpazar ART
Zapatua. 16:00. Anoeta.

Senior emakumezkoak
Arrasate/Durango-Eibar
Zapatua. 16:00. Mojategi.

PILOTA

Berria txapelketa
Gaur. 19:00. Bergarako udal
pilotalekuan Berria
txapelketako kanporaketa.

SOKATIRA

Euskadiko txapelketako finala
Zapatua. 17:00. Aramaioko
pilotalekuan.

TENISA

Santamas Txapelketako finalak
Zapatua. 11:00. hirugarren
eta laugarren postuagatik
lehia. Domeka. 11:00.
finalak. Musakolan.

egin nahi genuen, baina horrelako ekitaldietara Realeko presidentea eta hainbat jokalarik etorritzen dira, eta orain momentuan agendak hitzorduz beteta dituzte". Badakite Bergarako lagunartearen aurkezpenean izango direla Mikel Aranburu, Mikel Labaka eta Mikel Gonzalez: "Gipuzkoako zona bakoitzera

inguru horretako jokalariek joaten dira, baina oraindik bizpahiru hilabete itxaron beharko ditugu". Etxanizek aurkezpenera Griezmann gaztea ekarri nahi zuen, baina Realak ez du horrelakorik onartzen, batera eta bestera ibiltzeko gaztegia delako.

Batzarrean azaldu zuten lagunartekak Realarekin duen kon-

PILOTA > JAIALDIA

Gaur, Berria txapelketako kanporaketa Bergaran

Bergarako klubak esfortzua egin du kanporaketa etxeko zaleen aurrean jokatzeko

X.U. > BERGARA

Berria pilota txapelketako kanporaketa Bergarara ekartzeko ahalegina egin du klubak -herri bakoitzak diru kantitate bat ordainduta aukera du kanporaketa etxera ekartzeko-. Hala, pilotazaleek gaur, egubakoitza, Bergarako pilotarien eta Doneztebeko Erreka klubeko pilotarien arteko lehiatzeko gozatu ahal izango dute (19:00etan, Udal Pilotalekuan).

Hala, txapelketa horretan klub bakoitzak bi fitzaketa egiteko aukera izaten du: "Baina

gure filosofia beti izan da etxeko pilotariekin jokatzeko. Horregatik erabaki genuen kanporaketa gurera ekartzeko ahalegina egitea. Hala, egubakoitzerako jaialdi polita antolatuko dugu herriko pilota zaleendako", adierazi du Reyes Azkoitia.

Kadete mailan Jokin Etxabe eta Beñat Etxabe izango dira lehiari eta gazte mailan Mikel Gallastegi eta Beñat Rezusta. Azkenik, senior mailan Ander Mugurutzak eta Iñaki Jauregik jokatu dute Doneztebeko pilotarien kontra.


Aramaion



EGUZKIPLAZA.NET



Verkol Aloñako neskek Elgoibar hartuko dute Zubikoan
Ainhoa Unamunoren neskek postu bat gorago dagoen Elgoibarren bisita izango dute bihar Zubikoan (16:30).



EGIN TXOTX! sagardotegietan



Añota

Elosiaga auzoa, 434 Urraki errepidea
AZPEITIA
943 81 20 92

- Urte osoa zabalik (oporrak Gabonetan)
- Bazkari eta afariak egunerok
- 250 lagunentzako lekua
- Berezitasunak: zezina tortilla eta zezina arrautzeztatua
- Sagardo botilen salmenta
- **“Tolare” sagardotegia**



Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa / USURBIL / 943 36 66 63
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com

- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urte osoan irekita.
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik.
- Sagardo botilen salmenta.
- **“Tolare” sagardotegia**



Begiristain

Iturriotz baserria IKAZTEGIETA / 943 65 28 37
s.begiristain@terra.es
www.begiristainsagardotegia.com


- Urtariletik ekaina bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik. Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. Etxez-etxeko banaketarako (607 36 57 43).
- Sagardotegiko menua. Arkumea burduntzian enkar-guz. Afariak astelehenetik zapatara, bazkariak eguene-tik zapatara.
- Webgunean sagardotegira bazkidetzeko aukera.
- **“Tolare” sagardotegia**



Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- **“Tolare” sagardotegia**



Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28
www.iparragirre.com

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatara gauez
- Zapatu eta domeka eguerdian zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- “Zabadis” banatzaile ofiziala
- **“Tolare” sagardotegia**



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com


- Ostegunetik igandera irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.



Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
- Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- **“Tolare” sagardotegia**



Rezola

Ipintza baserria ASTIGARRAGA
943 55 27 20
rezolasagardotegia@gmail.com / www.rezolasagardotegia.com

- Astigarraga erdigunetik 100 m-ra..
- Urte osoan txotxetik zabalik
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldetan eta astelehen eguerdian itxita
- **“Tolare” sagardotegia**



Unzueta

Zabola z/g / ARAMAIO
945 44 50 95

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua: 29 €
- Berezitasuna: txuleta
- 70 lagunendako tokia
- Parking eta terraza

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **AROTEGI**
Urteko lehen erakusketa otsailaren 5ean irekiko dute > 32



> **ALEX MUELA**
Adi Holden "jotzeko gogoz" dagoela dio abeslariak > 32

> **MADDI IREGI**
Euskal kantu txapelketan ibili zen azaroan; horrez gain, trikitia, panderoa eta perkusioa jotzen ditu > 35



Ken Zazpi taldeko kideak. Ezkerretik eskumara, Iñaki Zabaleta (teklatuak), Eñaut Elorrieta (ahotsa eta gitarra), Jon Fresko (bateria), Igor Artzanegi (baxua) eta Beñat Serna (gitarra).

HONTZA

Ken Zazpiren kontzertuarekin etapa berria hasiko du Jamek

BIRAN Ken Zazpi talde gernikarrak 'Zazpi urte zuzenean' diskoa aurkezten dihardu

DISKOA Uztailean eta abuztuan hurrengo lana grabatuko dute Euskal Herrian eta Los Angelesen

EDU MENDIBIL > BERGARA

Joan den urteko urtarrilaren 3an Victoria Eugenia antzokian grabatutako *Zazpi urte zuzenean* diskoa aurkezten dihardu Ken Zazpi, eta bihar, zapatua, Jamen geldialdia egingo dute. Eñaut Elorrieta taldeko kantari eta liderraren arabera, asko gozatzeko ari dira abenduaren 23an Arriaga antzokian ekin zioten birarekin: "Bira bizia izaten ari da, jendea oso parte-hartzailea izaten delako gure kontzertuetan; sinergia berezia sortzen da. Zuzeneko hauetan ilusio eta indar handia inbertitu dugu, ikusleei plus bat emateko asmoz. Javi Ulla arduratu da argien diseinuaz eta Haritz Harreguy

soinuaz, zerbait propio sortzeko helburuarekin, eta oso gustura gaude emaitzarekin".

SEIGARRIN DISKOA AURTEN

Zazpi urte zuzenean izenburuko disko eta DVDan 14 kantu batu zituzten. Kantu horiek dira ikuskizunaren ardatza, baina, horrez gain, zuzenean horrenbestetan jo ez dituzten kantuei (*Atzo da bihar* lehenbiziko diskokoak nagusiki) eta oraindik argitaratu gabekoei egiten diete tartea. Hain zuzen ere, uztailean eta abuztuan grabatuko dute gernikarrek euren seigarren diskoa izango dena. Euskal Herrian eta Los Angelesen egingo dute grabazioa, Rafa Sardina ekoizleare-

kin. Dagoeneko bost kantu landuta dituzte disko berrirako, eta, Eñaut Elorrietak esaten duenez, zuzenekoetan "testatzen" ari dira kantuok. *Hegoak astindu* eta *Teloia jeisten denean* dira bihar Bergaran joko dituzten kantu berrietako bi. "Ikusleak harritu egin ahal dira ezagutzen ez dituzten abestiak entzunda, eta, gainera, emanaldi batetik bestera eraldatzen doaz abestiok; alde horretatik, erronka handia da taldearentzat. Bira honetako zuzenekoak dagokienez, esan daiteke *biluztue* egiten garela eszenatokian, nolabait taldearen iragana, oraina eta etorkizuna azalduz", dio Elorrietak.

Disko berria grabatzen hasi bitartean oraingo birarekin jarraituko dute. Maiatzaren 28an izango da azken kontzertua, zuzeneko diskoa grabatu zuten aretoan bertan, Victoria Eugenia. Durangoko azokan ere oso erantzun ona izan zuen diskoak: "Gure zigilu propioa sortu dugu, Argiak Diskak, eta Durangoko standean txandaka egon behar izan genuen

taldekideok. Esperientzia ederra izan zen gure entzuleekin hartueman zuzena izatea, eta, gainera, oso ondo saldu izan da diskoa.

Taldearen barrualdea azaltzen duen DVDa da". Jarraitzaileek bertatik bertara izango dituzte Ken Zazpikoak bihar Bergaran.

Kontzertuen ardura, Hontzaren esku

Jam aretoa 1996ko urriaren 5ean zabaldu zuten, Soziedad Alkoholika, Anestesia eta Koma taldeen kontzertu batekin. Ordutik hona makina bat talde igaro da Bergarako aretotik; estilo askotarikoak, gainera: Skunk Anansie, Queens of the Stone Age, Turbonegro, Sepultura, Rinocerose, Motörhead, Andres Calamaro, Toy Dolls, Public Enemy, Fermin Muguruza, Fangoria, Def con Dos, Saxon, Baron Rojo, Delorean, We are Standard, Ampanoia, Danko Jones, Social Distortion, Gamma Ray, Dio, Rage, Fito & Fitipaldis, Doctor Deseo... eta beste hainbat. Aurrerantzean, Hontza Produzioek izango dute Jameko kontzertuak antolatzeko ardura. Lehen ere Jamen ibilitako bi lagun zahar daude Hontzaren atzean: aretoko gerente izandako Fernando Etxabarri eta David Fernandez. Etxabarriren hitzetan: "Formatu ertaineko musika ikuskizunez zuzenean gozatzeko aukera eskaini nahi diegu Bergarari zein Debagoienari. Aretorekin baldintzak oso onak dira, agertokiaren kokapenagatik, are gehiago hobetu den akustika bikainagatik eta taldeei lanerako eskaintzen dizkien erraztasunagatik. Aretoko asko dago han eta hemen, eta SGAEK martxo aldera berria zabalduko du Bilbon, Campos antzokian. Dena dela, Jamek badu berezko egiten duen zerbait eta taldeek, promotoreek eta ikusleek gurekin bat egitea espero dugu". Besteak beste, Berri Txarrak, Rosana, Fangoria, Barricada eta Loquillo Bergarara ekartzeko asmoa daukate.

BERGARA > ERAKUSKETA ARETOA

Aroztegin 16 erakusketa egingo dituzte aurten

'Hilotzak deshilobiratzen, duintasunak berreskuratzen' erakusketa ibiltaria martxoaren 26an iritsiko da Barrenkaleko aretora

EDU MENDIBIL > BERGARA

Joan den urtean Bergarako Aroztegi aretoan egindako erakusketen balorazioa eta aurtengorako aurreikusitako erakusketen aurkezpena egin zuten Enara Minguez zinegotziak eta Edurne Korta Kultura teknikariak eguaztutegian. Aurten 16 erakusketa izango dira Aroztegin; lehenbizikoa egubakoitzean, otsailaren 5ean zabalduko dute. Neguko festen inguruan, argazkiak, panelak eta pertsonaiak izango dira ikusgai otsailaren 21era bitartean. Horren ondotik, Nagore Igartzaren argazki erakusketak (otsailaren), Jon Anduezen Indiako argazkiak (apirilaren), Jon Erra-

mun Etxeberriaren pinturak (ekainean), Juana Mari Gallastegiren argazkiak (itsuek ikusi ahal izateko moldatuak) eta Isabel Diez San Vicenteren argazkiak hartuko dituzte Aroztegiako paretak.

Eta dagoeneko ohikoak bilakatu diren hainbat hitzordu ere izango dira: Bergara Hiria Argazki Lehiaketa (maiatzean), kirol argazkiaren (irailean) eta urte bukaeran filatelia elkarteak, Beartekoek eta taila-zeramika taldekoek egingo dituzten erakusketak. Urriaren egingo den txotxongilo mostraren X. ekitaldia dela eta, erakusketa izango da Aroztegin eta nabarmentzekoak



Enara Minguez -zinegotziak- eta Edurne Korta -Kultura teknikaria-, eguaztutegiko prentsaurrekoan.

E.M.

dira baita Carlos Gartzia Angulo eta Juan Jose Altuna margolariak egingo dituztenak, abuztuan eta urriaren hurrenez hurren. Toribio Jauregi zenaren argazki erakusketa Udala Artziboak egingo du, azaroan.

MEMORIA HISTORIKOA

Aranzadi zientzia elkartearen *Hilotzak deshilobiratzen, duintasunak berreskuratzen* erakusketa ibiltaria martxoaren 26an zabalduko dute. 2000n hasi zen Aranzadi memoria berreskuratze lanean; Espainiako gerrako hobi komunetan lan egin duten bitartean bildutako argazkiak izango dira ikusgai Berga-

ran. Senitartekoaren emozioak, hobien birsortzeak eta hildakoen hezur eta objektuak ikusten dira, besteak beste. 40 oihalek osatzen dute erakusketa eta bakoitzean bi argazki daude.

IAZKO BALORAZIOA

Joan den urtean egindako erakusketek dagokienez, Serafin Esnaolaren argazkien erakusketak izan zituen bisitari gehien (albo koadroan). Erakusketak aukeratzeko batzorde mistoan Bearteko Luis Laskurain eta Bingen de Pedro, Xabier Aranburu udal museologoa, Enara Minguez eta Mikel Elkoroberezibar zinegotziak eta Edurne Korta daude.

Aroztegi 2009

ERAKUSKETAK	IKUSLEAK
Serafin Esnaola	3.170
Beartekoei omenaldia	1.710
Cantero/Gurrutxaga	1.612
Simon Arrieta	1.406
Joxan Iza	1.138
Musika Eskola	913
Taila eta zeramika	882
Beart	831
Oteiza	747
Laia Bedo's	644
Xabier Diaz de Zerio	569
Bergara Hiria (argazk.)	486
Filatelia	481
Mikel Garate	439
Pazos	423
Txiki Agirre 'Keixeta'	407
Kirol argazki lehiaketa	349
	16.207

ITURRIA: BERGARAKO UDALA

Alex Muela > Adi Holden taldeko kantaria

"Jendaurrean, zuzenean jotzeko gogoz gaude"

E.M. > BERGARA

Urtebete pasa da Adi Holden talde bergararrak Debagoieneko talde onenaren saria irabazi zuenetik Danbakan. Bihar, zapatua, The Hot Dogs taldearen *teloneroak* izango ditugu, Bergarako gaztetxean, 22:30ean. Azaroan Shot! estudioan grabatutako *Adi Holden* (Gaztelupeko Hotsak) diskoa (Danbakako saria) aurkeztuko dute Alex Muelak eta konpainiak.

Zertan aldatu da Adi Holden Danbakako finaletik hona?

Ez da inolako aldaketarik izan. Oso gutxi jo dugu orduetik hona, Bergarako jaietan bakarrik, eta entseatu barik ere denbora luzea eman genuen Goiko Estazioan berritze lanak egin zituztenean. Abesti berriak egiteko aprobe txatu dugu eta diskoa azaroan grabatu genuen, Arrasateko Shot! estudioan, Iñaki Bengoarekin. Zuzenean jotzeko gogoz gaude.

Nolako diskoa da?

Kontraste handiko lana dela esango nuke. Giro lasaiak (*Neguan izan zen edo Ilargia eskutetan* abestietan) eta intentsitate handiko uneak (*Japoniar anoni-*

moa edo *Bidean*) tartekatu ditugu. Hamaika kantu dira, tartean Hüsker Dü taldearen *Dianne* kantuen bertsiak. 1990eko hamarkadako hardcore-punk talde estatubatuarra da Hüsker Dü, taldekideoi asko gustatzen zaiguna.

Lau taldekideetatik hiru Cool Panicen ibilitakoak zarete. Zein da diferentzia?

Joera antzekoa izan daiteke, baina abeslariak asko baldintzatzen du talde bat. Orduan neska batek, Itziarrek kantatzen zuen, eta ingelesez. Orain, neu naiz abeslaria eta euskaraz egiten dut. Hitzek musikan eragina dute, eta alderantziz, gauza diferentek dira Cool Panic eta Adi Holden.

"Giro lasaiak eta intentsitate handikoak tartekatu ditugu diskoan"

"Euskaraz kantatzean, nahi ditugun gauzak esan eta jendeak ulertzea nahi genuen"

Euskal idazleengana jo izan duzue hitzen bila...

Bai; Sarrionandiaren hainbat olerki musikatzeaz gain, haren *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuan jasotako beste olerkari batzuenak ere erabili ditugu. Lagun batzuen hitzak ere badira diskoan... Euskaraz kantatzean, nahi ditugun gauzak esan eta jendeak ulertzea nahi genuen, alde horretatik Cool Panicen garaian, ingelesarekin, nahiko mugatuta geunden-eta.

Xabier Leteren olerki bat musikatu nahi zenuten, baina ezin...

Bere argitaletxearen bitartez proposatu genion emazteari idatzitako poema bat musikatzea, baina oso pertsonala zela eta berak musikatzea nahiago zuela erantzun zigun.

Baduzu diskorik etxean aitorzteak lotsa ematen dizunik?

Ez, benetan, ez daukat lotsarik ematen didan diskorik. Etxean daukadan musika guztia gustuko dut.

Erositako edo Internetetik jaitzitako azkena?



Alex Muela, Danbakako azken finlean, Elgetako Espaloian.

JOSETXO ARANTZABAL

Sonic Youth taldearen *The eternal* da erosi dudana azkena.

The Hot Dogs taldea izango da zuekin bihar gaztetxean. Zer esango zeniguke haiei buruz?

Oso talde ona dela, puripurian dagoen rock talde indartsua. Gau polita izango da zapatukoa. Gure partetik, onena ematen ahaleginduko gara, beti bezala.

Des-kontrol > Erasoari erantzuna

"Jotzeari uztea errazena eta tristeena litzateke; gu aurrera begira, gogotsu eta indarrez"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Astebetepasa da Des-kontrolak Barakaldon jaso zuen jipoitik. Albistea borbora balitz bezala zabaldu zen ahos aho, eta Euskal Herriko komunikabide gehienek ere eman dute horren berri. Orditik hona, elkartasun mezuak barra-barra jaso ditu taldeak. Datu bat: erasoak izan eta 48 ordura Facebook sare sozialesan 1.000 lagun batu ziren Des-kontrolari elkartasuna adierazteko sortutako taldean. Eta kopurua gora doa, etengabe.

Hasteko, zer moduz zaudete?

Zauri batzuk agerian daude oraindik eta beste batzuk sendatuta dira. Zauriak, baina, joango dira pixkanaka sendatzen. Hala ere, kolpe handiena psikologikoa izan da: egin digutena hor geratuko da betiko.

Markel izango da errekupe-ratzeko denbora luzeen beharko duena, besoa apurtuta du-eta. Esan digutenez, hilabete inguru beharko dugu agertokietara bueltatzeko.

Erasoaren bortizkeria ikusita ere, beraz, Des-kontrolak ez dio musika egiteari utziko...

Planteatu ere ez dugu egin. Jotzeari uztea errazena eta tristeena litzateke. Gure azken diskoak dioten moduan, gu aurrera begira, gogotsu eta indarrez.

Salaketa jarri duzue, izen eta abizenekin. Zein sententzia da epailearengandik espero duzuen?

Ezagutzen ditugun sententzia bakarrak kontrakoak izan dira. Salaketa jarri dugu, baina oraindik izen eta abizenen bila gabiltza; detektibe lanetan dihar-

dugu. Lan horretan laguntzen ari diren lagunak ditugu Bilbo inguruan, eta, gainera, lekuko moduan deklaratzeko gertu daudela ere jakinarazi digute.

Laguntzeko gertu duzuen jenderik ez zaizue falta, eta elkartasun mezuak barra-barra jaso dituzue. Zer duzue esateko?

Atzean jende asko dugun seinale da. Euskal Herri osoko jendea ari da elkartasuna adierazten. Elkartasun mezuak izugarri eskertzen dira halakoetan; aurrera egiteko indarra ematen digute.

Erasoaren berri lau haizeetara emateaz gain, pentsatu duzue beste zerbait egitea?

Plataforma bat sortzekotan gabiltza, musikaz haratago doan eragileengandik babesa jasotzeko. Hala ere, oraindik ez dugu ezer zehaztu; denbora aurrera doan heinean egingo dugu. Orain, telefonoak ez dio jotzeari uzten...

"Zauriak joango dira sendatzen, baina egin digutena hor geratuko da betiko"

"Elkartasun mezuak izugarri eskertzen dira; aurrera egiteko indarra ematen digute"

"Eraso honekin mugak hautsi dituzte, bertan hiltzeko moduko erasoak izan da-eta"

Aspaldiko arazoa da Herri Norte taldearen barruan kokatzen diren skinhead gorri horiekin duzuen. Ikusten diozue soluziobiderik?

Guk musika egiten dugu, besterik ez. Eurak gelditzen ez diren bitartean arazoa ez da konponduko. Hala ere, eraso honekin mugak hautsi dituzte, bertan hiltzeko moduko erasoak izan zen. Eta uste dugu jendea horretaz ohartu dela. Duela urte batzuk eurekin berba egiteko asmoa erakutsi genuen, baina ez zuen ezertarako balio izan. Orain, noski, ez dugu eurekin berba egin nahi.

Euren eskuetan dago, beraz.

Arazoa konpontzeko urratsak egiten dituzten ikusi beharko da, Herri Norte taldearen barruan halako jarreraren kontra dagoen jendea ere badago-eta. Jakin dugunez, euren artean hasi dira zenbait arazo sortzen.

"Oraingoan urrutiegi joan dira" dioten jendea dago, baina erasotzaileak eurekin ibiltzen dira eta ez dute haien aurka ezer egiten. Eta horrela, arazoa ez da konponduko.

Hilabete barru Des-kontrol agertokietan izango dugu. Noiz eta non? Prestatu duzue zerbait berezirik itzulerarako?

Otsailaren 20an Algortan jotzekoak ginen, baina ikusi beharko da Markel ordurako jotzeko moduan egongo den. Espero dugu otsailaren 26an Leitzan eta 27an Elorrioren jotzea; ordurako gertu egongo garela uste dugu.

Azkenik, itzulerarako ez dugu ezer berezirik aurreikusten oraindik, baina ikusiko da.



"Ezustearen eta atzetik" harrapatu zituztela dio Des-kontrolak. Irudian, taldekideak Arrasaten, asteon ateratako argazkian. IBAN GORRITI

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

URTARRILEKO
ZOKKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



EUSKARAZKO
JOSTAILUAK

Bidali KLUBA JOSTAILUAK
[Bazkidearen izena]
5195 zkra.



UMEENTZAKO
LIBURUAK

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen izena]
5195 zkra.



SASKIBALOIARAKO
SARRERAK

Bidali KLUBA BASKET
[Bazkidearen izena]
5195 zkra.



GOIENAKO
PENDRIVE-A

Bidali KLUBA PENDRIVE
[Bazkidearen izena]
5195 zkra.



SARI NAGUSIA
URTARRILA-MARTXOA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

JOCCA RACLETTE



- Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
- Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZA mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzue datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezteztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Maddi Iregi > Trikitilaria

"Saltsero samarra naizelako trikitia jotzera animatu ninduten ingurukoek"

Abestea gogoko du Maddi Iregi eskoriatzarrak. Aretxabale-tako koruan ibilitakoa da eta azaroan euskal kantu txapelketara aurkeztu zen Maite Galdosekin batera. Horrez gain, trikitia, panderoa eta perkusioa jotzen ditu. Gainera, dantzatzea du zaletasunetako bat. Hori gutxi balitz, batxilerreko azkeneko urtea egiten dihardu Almenen.

NAROA ODRIOZOLA > ESKORIATZA

Abesteko edo trikitia jotzeko beti prest dago Maddi Iregi. Ezerkez du atzera botatzen 17 urteko gaztea, eta aukera duen bakoitzean trikitia hartu eta kaleak animatzera irteten da. Bada, ohikoa duen alaitasunarekin erantzun ditu gure galderak.

Abestea gustuko duzu; dutxan abesten duen horietakoa zara?

Abestea asko gustatzen zait. Dutxan beti abesten dut edozein abesti, baita nik asmatutakoak ere. Askotan, bertsoen bat abesten dut.

Nondik dator kizu zaletasuna?

Etxean beti izan gara abestekoak. Amak eta aitaitak asko abestu dute. Koadrilako bazkariak izaten dituztenean beti abesten du amak eta txikitari autoan gindoazela beti abesten zidan.

Gipuzkoako euskal kantu txapelketan parte hartu zenuen azaroan. Nolatan?

Maite Galdosekin joan nintzen txapelketara. Orain dela 11 urte trikitia jotzen hasi nintzen, eta bost urte izango dira Ines Osinagarekin nabilela. Inesekin hasi nintzenean beste modu baten hasi nintzen trikitia jotzen. Trikitia jotzeaz gain, abesten hasi ginen. Orduan, lehiaketa batera aurkezteko gogo sartu zitzaigun, eta, Maiteri eta bioi ondo irteten zitzaigunez, Inesek animatu egin gintuen.

Horregatik aurkeztu ginen txapelketara, eta emaitza ona lortu genuela uste dut. Probatzera joan ginen. Lehenengo saioa Arrasaten izan zen eta finalera pasatu ginen; finala Donostian izan zen eta hirugarren postua lortu genuen.

Errepikatzen moduko esperientzia izan zela uste duzu?

Probatu gabeko esperientzia zen. Probatzera joan ginen eta ondo irten zitzaigun. Askok ikasi genuen bertatik eta, gainera, jendea ezagutu genuen. Hurrengo urtean, ahal izanez gero, berriaz aurkeztuko gara.

Gure zortea abestia kantatu zenuten Maite Galdosek eta biok finalean. Zergatik aukeratu zenuten kantu hori?

Abestiak euskal kantua izan behar zuen eta erreperitorio zaharra erreparatu hasi ginen, batez ere gustuko abestiak edo gehien entzundakoak. Orduan, *Gure zortea* abestia ekarri genuen gogo-



MIRARI ALTUBE

PERTSONALA

Herria: Eskoriatza. **Adina:** 17 urte. **Ikasketak:** Batxilerra egiten dihardut Almenen. **Zaletasunak:** Abestea, trikitixa jotea, dantza egitea... **Irakurritako azken liburua:** Tatiana de Rosnayren *La llave de Sarah*. **Abeslari bat:** Rod Stewart. **Abesti bat:** John

Lennon-en *Imagine*. **Film gomendagarri bat:** *El niño con el pijama de rayas*, John Boynerena. **Bizitzako leloa:** *Carpe diem*. **Bizi izateko leku bat:** Itsasoa eta mendia dituen edozein toki. **Amets bat:** Berdintasuna eta errespetua egotea.

ra, Inesek askotan jotzen zigulako. Eta horregatik erabaki genuen abesti hori abestea txapelketan.

Zer sentitu zenuen agertokira igotzean?

Hasieran, nerbioak, baina gero hazi egin nintzen. Denak niri begira daude, eta, gainera, gustura daudela ematen du. Ezin da gehiagorik eskatu. Lehenengotan lotsa handia ere pasatu nuen, baina denborarekin pasatu egin zitzaidan. Azkeneko gorputza mugitzen hasi nintzen eta lotsa uxatu egin nuen.

Euskal kantuak soilik ala bestelako kantuak ere gogoko dituzu?

Denetik gustatzen zait. Gasteleazko eta ingelesezko abestiak ere gustatzen zaizkit. Estiloari dagokionez, popa, salsa eta horrelakoak ditut gustuko.

Trikitiaz gain, bestelako musika instrumenturik jotzen duzu?

Trikitia orain dela hamaika urte hasi nintzen ikasten. Hasieran, akordeoia jotzen ikasi nahi nuen, baina amak trikitia jotzera bultzatu ninduen, nire izaerarekin bat zetorrelako. Saltsero samarra nintzela esaten zidan. kalean ibiltzekoa nintzela. Eta, egia esan, amak arrazoi zuen. Trikitiaz gain, panderoa eta perkusioa jotzen ditut.

Musikatik bizi izan gurako zenuke?

Bai, baina oso zaila da. Nire ustez, asko nabarmendu behar da musikatik bizi izateko. Arrakastarik ez duen jende asko dago musikan sartuta. Gurako nuke, baina ezinezkoa dela uste dut.

Horrez gain, batxilerra egiten diharduzu.

Batxiler humanistikoa egiten dihardut. Betidanik gogoko izan ditut letrak eta historia ere asko gustatzen zaidan arloa da.

Batxilerra bukatzean zer egiteko asmoa duzu?

Hori notaren arabera ikusi beharko dut gero, baina aukeraketa batzuk eginda ditut. Publizitatea asko gustatzen zait eta baita zientzia politikoak ere.

Bestelako zaletasunik badaukazu?

Dantza egitea asko gustatzen zait. Lagunekin egotea, musika entzutea eta parrandan irtetea.

hildakoak

- **Teresa Mujika Agirrezezeaga.** Bergaran, urtarrilaren 12an. 87 urte.
- **Jose Mari Sarasua Zumeta.** Aretxabaletan, urtarrilaren 22an. 72 urte.
- **Maria Luisa Letamendia Garai.** Aretxabaletan, urtarrilaren 23an. 66 urte.
- **Eusebia Villar Igartua.** Arrasaten, urtarrilaren 23an. 95 urte.
- **Maria Dolores Leon Baleran.** Oñatin, urtarrilaren 23an. 75 urte.
- **Esther Balantzategi Arregi.** Arrasaten, urtarrilaren 24an. 47 urte.
- **Juliana Zangitu Leturiondo.** Bergaran, urtarrilaren 25ean. 92 urte.
- **Maxima Urreta Iturbe.** Aretxabaletan, urtarrilaren 25ean. 94 urte.
- **Angela Andres Martin.** Arrasaten, urtarrilaren 25an. 77 urte.
- **Pedro Rodriguez Delgado.** Arrasaten, urtarrilaren 27an. 73 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.
Zerbitzu orokorrak: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 120 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **160** euro.

Goiena klubeko bazkideek: 110 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

Goienkaria: astero, 41.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.



ESKER ONA

Tere Mujika Agirrezezeaga

Bergaran hil zen 2010eko urtarrilaren 22an, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko urtarrilaren 29an.

OROIGARRIA

Carmen Martinez Ayucar

Joxefe Diaz de Tuesta gure kolaboratzailearen ama
Gasteizen hil zen 2010eko urtarrilaren 26an, 88 urte zituela.

*Izan zarelako gara.
Garelako izango dira.*

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Arrasaten, 2010eko urtarrilaren 29an.

URTEURRENA

Julia Barrio Araujo

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 31n, 12:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Jose M. Aldanondo Ibabe

Bergaran hil zen 2009ko urtarrilaren 31n

Gure bihotzean egongo zara beti.



Gomez de Segura Fernandez senditartekoen partetik.
Bergaran, 2010eko urtarrilaren 29an.

URTEURRENA

Sabina Kortabarria Aiastui

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 30ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Esther Balanzategi Arregi

*Izarra lokartu
eta denbora bihurtu da.
Eskerrik asko.
Maite zaitugu.
Patxo bat.*



ZIGeko guztion partez.
Arrasaten, 2010eko urtarrilaren 29an.

URTEURRENA

Pedro Arregi Aranburu

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 30ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Jose Mari Sarasua Zumeta

Josu Sarasua lankidearen aita
2010eko urtarrilaren 22an hil zen, 72 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.*



Arizmendi ikastola.
Leintz bailaran, 2010eko urtarrilaren 29an.

URTEURRENA

Asun Uribesalgo Zuazua

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 31n, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian ospatuko da.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Jesus Elgezabal Orbe

M. Luisa Llona lankidearen aita
2009ko abenduaren 24an hil zen.

*Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.*




Arizmendi ikastola.
Leintz bailaran, 2010eko urtarrilaren 29an.

Urtarrilak 29-Otsailak 5

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Argazkiak



ARETXABALETA

> Antonio Valenciaren argazki erakusketa zapatura arte dago ikusgai Arkupen

Antonio Valenciak *Beste xomorro batzuk* izenburuko argazki erakusketa jarri du ikusgai Arkupen. Zomorro, narrasti eta beste hainbat animaliatxo jaso ditu argazkitan. Gaur 18:00etatik 20:00etara eta bihar 11:00etatik 13:00etara.

Musika



BERGARA

> Aitzuri abesbatzaren emanaldia zapatuan Mariaren Lagundiko elizan

Debako Aitzuri abesbatzak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan. Fernando Urainen zuzendaritzapean, besteak beste, Mozart, Rachmaninov, Busto eta Soloza-balen piezak eskainiko dituzte.

Dantza



ELGETA

> 'Herrixa dantzan' Espaloian hileroko azken domekan, etzi hasita

Herrixa dantzan dantzaldi irekia egingo dute Espaloia Kafe Antzokian domekan, 19:00etatik 20:30era. Patxi Montero dantza gidariaren eskutik, Euskal Herriko eta Europako dantza tradizionalak landuko dituzte hilean behin.

ARRASATE

> Eskulan ikastaroa Udaleko Emakume Sailaren eskutik

Eskulanetako teknika ezberdinak ikasiz ondo pasatze-ko ikastaroa da. Egurra, laminak, margoketa, birziklatzea, Van Dal, eztainua, zilarra, beruna eta kristala landuko dituzte Bea Arregirekin. Martxoaren 23ra arte, martitzeno 15:30etik 17:30era edota 18:00etatik 20:00etara.

Argibideak eta izenematea 943 79 83 70 eta 651 70 79 36 telefono zenbakietan.

ARRASATE

> 'Estresa, nola gainditu?' ikastaroa otsailan

Ekin Emakumeak elkarteak antolatuta, otsailaren 1etik 10era, astelehen eta eguaztenetan, 17:30etik 20:30era.

Argibideak eta izenematea: 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefonoan.

ARETXABALETA

> Flamenko dantza ikastaroa otsailaren 26tik aurrera

Flamenko dantza ikastaroa, Jaiki elkartearekin. Otsailaren 26an eta martxoaren 5ean, 12an eta 26an, 18:00etatik 20:00etara.

Argibideak: 653 70 50 68 edo jaikielkartea@yahoo.es helbidean.

ARRASATE

> Emakume Txokoaren eskutik hainbat ikastaro

Arrasateko Emakume Txokoak hainbat ikastaro iragarri ditu otsailerako eta martxorako: bertso ikastaroa; emakumeak eta osasuna: gure emozioak; emakumeak eta osasuna: gure sexualitatea; autoestimua eta hazkuntza pertsonala; barreterapia; yoga; gorputzaren mugimendu kontzientea lantzeko ikastaroa; eta zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa.

Argibideak Emakume Txokoa, 943 79 41 39 telefono zenbakian.

ARRASATE

> Emakumeendako Jabetze Eskola, abian

Emakumeen ekarpenak berreskuratzeko eta baloratze-ko; elkarrengandik ikasteko; harremanak bultzatzeko; pertsonalki eta kolektibo modura indartzeko... Horretarako gunea izan nahi du Jabetze Eskolak. *Nola hitz egin jende aurrean*, otsailaren 2tik aurrera (20 ordu); *Antzerki tailerra emakumeendako* otsailaren 4tik (30 ordu); *Zein da Simone de Beauvoir-en beldur*, otsailaren 10ean hasita; *Emakumeak euskal kulturaren eta jendarrean*, otsailaren 25etik; *Grafikoki esparru publikoa aktibatzen*, martxoaren 12tik; eta *Jostailu erotikoen tailerra*, otsailaren 19an eta 26an.

Argibideak Emakume Txokoa, 943 79 41 39 telefono zenbakian.

Antzerkia

ARRASATE

> 'Sarean sun sun' txotxongilo antzezlan bihar Amaian

Sorginen fantasiako mundua txotxongilo ikuskizun baten bidez. Anita Maravillas Teatro taldearen eskutik.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

Musika

ELGETA

> The Uski's eta 'Etxe' gaur gauean Espaloian

Musika freskoa eta dantza-garria, batetik; kantautore rockero baten musika, bestetik. Kontzertu osoa grabatuko dute ETB3ko kamerek.

Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean. Sarrera, doan.

ARRASATE

> Bi kontzertu asteburuan 3 aretoan

Gaur, egubakoitza, Antinowhere League eta Gorroto; bihar, zapatua, Vicepresidentes eta artista gonbidatua.

Bi kontzertuak, 23:00etan. Gaur, 10-12 euro; zapatuan, 8 euro.

BERGARA

> Adi Holden eta Hot Dogs zapatuan gaztetxean

Adi Holden bergararrek diskoa aurkeztuko dute.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

Erakusketak

BERGARA

> Aratusteetako kartelak

Kartel lehiaketara aurkeztutako lanak daude ikusgai.

Kultura etxean otsailaren 19ra arte, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara.

Ikastaroak

BERGARA

> Hainbat ikastaro otsailtik aurrera Bizikasirekin

Oinarrizko jostaketa ikastaroa otsailaren 1etik 12ra, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara; defentsa pertsonalarena, berriz, otsailaren 22tik martxoaren 31ra, astelehen eta eguaztenetan 17:30etik 19:00etara; web orrien ikastaroa martxoaren 15etik 30era, astelehenetik eguenera, 16:00etatik 18:00etara; oinarrizko informatika, 22tik martxoaren 31ra, astelehenetik ostegunera, 15:00etik 17:30era; arrisku handiko elikagaien manipulazioa, martxoan.

Argibideak: 943 76 93 94 (Miren) edo info@bizikasi.com helbidean.

ARRASATE/BERGARA

> Biodantza ikastaroa

Arrasaten, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara, Erguin kaleko Slimming gimnasioan. Bergaran, martitzenetan 14:45etik 16:45era Giartzu gimnasioan edo eguaztenetan 16:45etik 18:45era Samadhi yoga elkartearen lokalean, Masterrekan.

Argibideetarako, deitu 626 66 12 92 telefonora (Mentxu).

ARETXABALETA

> Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartearen eskutik

Martitzeno izango dira eskolak, 19:30etik 21:00etara, kuartel zaharrean. Ekainera arte izango da ikastaroa.

Izenematea 653 70 50 68 telefonoan edo jaikielkartea@yahoo.es helbide elektronikoa.

BERGARA

> Erromeriako dantzak eta dantza soltea

Jardun euskara elkarteak antolatuta, erromeriako dantzen ikastaroa otsailtik maiatzera, martitzenetan 19:30etik 21:00etara. Fandangoa eta arin-arina Juantxo Urbietak erakutsiko ditu eguaztenetan, 19:30etik 21:00etara. Otsailtik maiatzera maila guztiak.

Argibideak Jardun euskara elkartearen, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

ARRASATE

> Yoga ikastaroa

Txindoki dorrean izango da (Bañez Doktorea 1): astelehen eta eguaztenetan, 09:30-11:00; martitzen eta eguaztenetan 14:30-16:00 eta 19:00-20:30.

Argibideak eta izenematea: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

PROPOSAMENA



BERGARA

> Ken Zazpi taldea zapatuan Jamen

Eskuinaldean, Iñaki Zabaleta, Eñaut Elorrieta, Jon Fresko, Igor Artzanegi eta Beñat Serna, Ken Zazpi taldeko kideak. *Zazpi urte zuzenean* da haien azken diskoa, iaz urtarrilean Victoria Eugeniaren grabatutakoa. Gernikarrak Jamen izango dira bihar eta Bergarako kontzertu aretoan beste etapa bat bat hasiko dute. Josu Bergara izango da *teloneroa*.

Bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:45ean. Sarrerak: aurrez 12 eurotan eta kontzertu egunean, leihatilan, 15 eurotan.

Santxolopeztegiko altxorrak

ERMITA Oñatiko Santxolopeztegi auzoko ermitan San Francisco de Borja zenaren ohe zatia daukate gordeta

BIZI IZATEN Ermita horretan bizi izan zen; 1551n bidali zuen hara Loiolako San Ignaziok, "herritarrak lasaitzera"

ZATIKA Ermitan izan diren gotzainek zatika eroan izan dute ohea, "oroigarri moduan"; orain, debekatuta dago

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
 Oñatiko Santxolopeztegi auzoan –herrian Madalena izenarekin ezagunagoa–, bada ermita bat San Francisco de Borjaren oroitza gordetzen duena.

1551n bidali zuen hara Loiola-ko San Ignaziok, "herritarrak lasaitzera", Migel Angel Ormazabal auzotarrak esan duenez. Han bizi izan zen bi urtez, 1553ra arte, eta kapera egin zioten meza esateko: "Hark meza esaten zuen kapera ikusgai dago", azpimarratu du Ormazabalek, eta hau gehitu: "Hark erabilitako kaliza eta ume-ek berba egiten ikasteko balio ei duen kanpaitxo ermitan daude".

Baina San Francisco de Borjak beste gauza bat ere laga zuen Madalena ermitan: ohea. "Kaperan dago harena izandako ohe zatia. "Ez dago osorik", azaldu du Ormazabalek; "Hona etorritako gotzainek zatika eroan dute oroigarri moduan, baina orain hori egitea debekatuta dago", gehitu du.

Historialarien esanei jarraituz, Gandiako duke izan zenak

ermita horretan hartu zituen ordena guztiak, lau egun iraun zuen ekitaldian. 41 urte zituen orduan, eta, historiako liburuek jasotzen dutenez, garaiko gertaera nagusietakoa izan zen hura.

BERGARAN LEHENENGO MEZA

Oñatiz gainera, Bergaran ere izan zen San Francisco de Borja. Hain justu ere, Bergaran esan zuen lehenengo meza publikoa –aurretik Loiolan esan zuen beste bat, baina ekitaldi hura intimoa izan zen.

1551ko azaroaren 15ean esan zuen meza hura eta Julio III.a aita santuak iragarritako barkamen osoa jaso zuten bertaratu-takoek. Historialariek diotenez, 12.000 pertsona inguru batu ziren meza hartan. Horregatik, lehenengo meza hura San Pedro parrokian esatekoa bazen ere, jendetza hura kontuan izanda leku irekian esatea erabaki zuen, eta horretarako, Santa Ana ermita aukeratu zuen. Ermita horretan, meza haren plaka oroigarria dago.



SANTXOLOPEZTEGIKO ERMITA Migel Angel Ormazabal, San Francisco de Borjaren irudia erakusten.

TXOMIN MADINA

ahobero

"Errore informatikoagatik kobratu dira Haitirako laguntzen gaineko komisioak hainbat bankutan"

Encarna Perez >
 Espainiako Bankuen Elkarteko Komunikazio zuzendaria Amerikako herri txiroenak jasan duen sarraskiaz ere aprobetxatu nahi dira bankuak eta aurrezki kutzak. Laguntza eman dutenek bankuek komisioa kobratzen dutela jakinarazi izan ez balute, berdin bueltatuko zuten diru hori?

iturri onetik

Jon Anduezen dokumental berria estreinatuko dute otsailaren 16an

Jon Anduezak film dokumental berria egin du: *Simplemente* izenekoa. Down sindromea dutenekin –Despertar los Sentidos dantza taldeko kideak– eta haien gainean egindakoa da eta Oriñongo hondartzan filmatuta dago. Otsailaren 16an estreinatuko dute, Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Debagoienara hilaren 26an iritsiko da, eta Arrasateko Amaia antzokian aurkeztuko dute.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Errepidea ordaindu?

Onartzen dut ordaindu beharra, doaneko alternatiba duinik badagoenean. Zilegi deritzot ordaindu beharra oztopo moduan erabiltzeari garraio kolektiboaren mesedetan. Eta beharrezkoa zait merkatuzien garraioa zamatzera, ibilbide luzekoa denean, hurbileko kontsumoa bultzatu eta karboniko isuriak gutxitzeko.

Hori esanda, eskatzeko ordua dator. Antola dadila ordainketa sistema koherente bat, Santanderra goazenean ez gaitzen tonto sentitu. Gara dadila garraio publiko hurbilekoa eta azkarra. Ez dezala administrazioak nahastu gai hau gastu sozialen hazkunderarekin edo zerga bilketaren murrizketarekin, ez daude lotuta. Eta aurreikus dezatela tarifa berezia bertako erabiltzaileontzat, gehiago ordain dezan paseko trafikoak.

ai, ene!




Pisatzen duzuna jakin nahi? Joan geltokira!

Britainia Handian, zenbat pisatzen duzun esaten dizuten autobus geltokiak daude. Eserlekuan bakarrik jezarri behar da jendea.

www.sarda.es

PREST




MONDRAGON UNIBERTSITATEA

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE OTSAILAK 6 larunbata - 11:00

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI OTSAILAK 11 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA OTSAILAK 18 osteguna - 18:00

ARETO NAGUSIAN